

GAIA: INFORMAZIO-OHARRA – 2017ko BIZKAIKO KATASTRO BERRIKUSPENA

Joan den 2015eko azaroaren 30eko informazio-bileran hartutako konpromisoaren jarraipen gisa, eta Lurralde Historikoko landa- eta hiri-lurreko ondasun higiezinaren katastro-berrikuspenaren prozesuari dagokionez, EUDELeko Bizkaiko Lurralde Batzordeak, 2016ko martxoaren 17an eginiko bileran, udal guztiei beherago datorren oharra bidaltzea erabaki du.

INFORMAZIO-OHARRA:

1. Bizkaiko Foru Aldundiaren Gobernu Kontseiluak 2016ko martxoaren 8an Foru Arauaren honako proiektuak onartu ditu (zirkular honi atxikita doaz):

- Ondasun higiezinaren gaineko Zergaren Foru Arauari buruzko proiektua.
- Bizkaiko Lurralde Historikoko Ondasun Higiezinaren Foru Katastroaren Foru Arauari buruzko proiektua.

Ondorioz, indarrean sartutakoan (maiatzaren erdialdean, seguruenez), indargabeturik geratuko da Ondasun Higiezinaren Zergari buruzko ekainaren 30eko 1989/9 Foru Araua, orain OHZri eta Ondasun Higiezinaren Foru Katastroari dagozkien xehetasunak arautzen dituenak.

2. Ondasun higiezinaren gaineko Zergaren Foru Arauaren proiektuaren edukiaz, eta udal erabakiak hartzeari erreparatuz, honakoa nabarmentzen da:

- a) 8. artikulua: Ezarri egin da lau karga-tasa arte onartzeko aukera:

- Karga-tasa orokorra, ehuneko 0,02 eta 0,6 artekoa hiri-lurren ondasunetarako eta ehuneko 0,05 eta 0,5 artekoa landa-lurren ondasunetarako.
- Tasa ezberdina industria-erabilerarako, ehuneko 0,02 eta 3 artekoa.
- Tasa ezberdina merkataritza-erabilerarako, ehuneko 0,02 eta 2 artekoa.
- Tasa ezberdina gainerako erabileretarako, Bizitegi erabilerarako (V) ez Beste erabileretarako (Y) izan ezik (horiei tasa orokorra ezarriko bailitzaieke), ehuneko 0,02 eta 1 artekoa.

- b) Lehenengo xedapen gehigarria. 2017rako Karga-tasak.

1) Baldin eta udal batek erabakitzen badu, Foru Aldundiak seguruenez irailetik aurrera egingo duen katastro-berrikuspenaren prozeduratik eraginez sortutako katastro-balio berriak jakinarazteko orduan, dagokion Ondasun Higieziinei buruzko Zergaren kuotaren berri ematea, orduan behin behinean onartu beharko dute karga-tasa eta Bizkaiko Foru Aldundiari uztailaren 1a baino lehen jakinarazi.

2) Tasa gehigarria. 2017ko urtarrilaren 1a baino lehen landa- edo hiri-lurren ondasun higiezinetarako karga-tasa berriak onartu eta argitaratu

ez dituzten udalei Lehenengo Xedapen Gehigarriaren 2. atalean ezarrita dagoen formulatik eragindako karga-tasak ezarriko zaizkie.

- c) Xedapen iraganko bakarra. Ezaugarri bereziak dituzten ondasun higiezinak oraingo katastro-berrikuspenetik kanpo geratuko dira. Izan ere, berrikuspena geroago egingo da.
 - d) Katastro-berrikuspenaren ezarpena. Aurreikusten da katastro-balio berriak 2017ko urtarrilaren 1erako indarrean sartzea. Ez da aurreikusten katastro-balio berriok progresiboki ezarriko dituztenik.
3. EUDelko Bizkaiko Lurralde Batzordeak lanean jarraituko du; hartara, udaletan egiten ari diren simulazioek eragindako efektuak ikusi ostean, neurri gehigarriak proposatu ahal izango dira, baldin eta halakoak beharrezko ikusten badira Foru Arauen proiektuak izapidetzen ari direnenean.

PROIEKTUA: XXXX/2016 FORU ARAUA, XXXXren XX(e)koa, Ondasun Higiezin gaineko Zergari buruzkoa.

Ondasun Higiezin gaineko Zerga ondasunen gaineko zuzeneko tributu bat da, izaera errealekoa, Bizkaiko Lurralde Historikoko edozein udalerritako landa- eta hiri-ondasun higiezin balioa kargatzen duena. Nahitaez ordainarazteko tokiko zerga da, eta tokiko tributu-sistemaren oinarritzat jotzen da, udalek diru-bilketarako duten iturri nagusia baita.

Ondasun Higiezin gaineko Zergari buruzko 1989ko ekainaren 30eko 9/1989 Foru Arauak, indarrean egon den hogeita bostetik gora urteetan, tokiko zerga hori arautzeaz gainera, Bizkaiko Lurralde Historikoko Higiezin Katastroaren inguruko guztia arautu du. Baina sistematika argirik gabe eta gai bien arteko lotura-puntu gisa OHZren zerga-oinarria zehazteko ondasun higiezin katastro-balioa aplikatzea erabilita, foru arau horrek, tokiko zerga honetaz gainera, Higiezin Foru Katastroa arautzen zuen eta katastro-balioak finkatu, berrikusi, aldatu eta eguneratzeko prozedura ezartzen zuen.

Bada, arau hori denbora luzean egon denez indarrean, aldaketa ugari eta garrantzitsuak egin zaizkio haren edukiari, eta Katastroaren arloan nabarmentzekoa da 2003ko martxoaren 26ko 7/2003 Foru Arauak, Tokiko zerga-ordainketaren araubidea eraldatzekoak, eragin zuena; gainera, eremu propioa eman behar zaio gai horietako bakoitzari, nahitaez lotuta dauden arren printzipio ezberdinei erantzuten diete-eta. Horrenbestez, gomendagarria da gaiok arautzeko tresna arauemaile autonomoak onestea. Horrela, 1989ko ekainaren 30eko 9/1989 Foru Arauaren edukia bitan zatituko da: batetik, Ondasun Higiezin gaineko Zergari buruzko foru arau honetan; bestetik, Bizkaiko Lurralde Historikoko Higiezin Foru Katastroari buruzko Foru Arauan.

Ondasun Higiezin gaineko Zergari buruzko foru arau honek 13 artikulua ditu, hiru xedapen gehigarri, xedapen iragankor bat, xedapen derogatzaile bat eta azken xedapen bi, eta kontinuitate da aurreko araudiarekin. Nolanahi ere, berritasun garrantzitsu batzuk dakartza —eta zuzenketa tekniko eta terminologikoak ere bai— gaiok arau bitan zatitzearen ondorioz eta arauketa hori Bizkaiko Lurralde Historikoko Zergei buruzko Foru Arauak jasotzen duen oinarritzko esparru komunari egokitzearen ondorioz.

Berritasunen artean, ondasunen hirugarren kategoria bat definitzeak zerga-oinarriaren eraketan dakarren aldaketa dago; izan ere, Higiezin Foru Katastroari buruzko Foru Arau berrian ondasunen hirugarren kategoria bat definitzen da, hiri- eta landa-ondasun higiezinekin batera: ezaugarri bereziko ondasun higiezinak. Gainera, ondasunok, modu iragankorrean, berezita geratuko dira aplikagarri zaien karga-tasa dela-eta, ondasunen hirugarren kategoria horri dagozkion katastro-balioak berrikusteko prozedurari aurreragoko beste fase batean ekingo baitzaio.



Era berean, salbuespen eta hobariak sistematizatu eta antolatzen dira, eta, hala, nahitaezko hobariak eta hautazko hobariak bereizten dira. Bigarren hobarioi dagokienez, ordenantza fiskalen bidez halakoak ezartzeko ahalmena ematen zaie udalei. Bada, hautazko hobarietan beste berritasun batzuk ere jasotzen dira: batetik, hobari berri bat ezartzen da egoiliarrentzako udal aparkalekuetako partzelen gaineko aldi baterako titulartasunaren kasuan; bestetik, zabaldu egiten da erkidegoaren, aldundien zein udalen etxebizitza hutsen inguruko programek duten hobariaren aplikazio-eremua; eta, azkenik, handitu egiten da hondamendi naturalak jasandako eremuetan dauden higiezinak zergaren kuotan duten hobariaren ehunekoa.

Baina, zalantzarik gabe, foru arau honetan aipagarriena karga-tasaren eraketa eta zehaztapen berria da, Bizkaiko Foru Aldundiak hiri- eta landa-ondasun higiezinentzat onetsiko dituen balio-txosten berrien ondorioz; karga-tasa hori zuzenean lotuta dago 2017ko urtarrilaren 1ean indarrean jarriko diren katastro-balioekin. Hori dela eta, gutxieneko tasa bat, ezartzen da hiri-ondasun higiezinentzat eta beste bat, berriz, landa-ondasun higiezinentzat: biak ere aurreko araudian indarrean zeudenak baino txikiagoak dira, katastro-balioek izango duten gehikuntza konpentsatzeko. Halaber ezartzen da gehieneko tasa bat ondasun higiezinaren kategoria bi horientzat, eta, ondorioz, udalek, zergaren titular eta kudeatzaile direnez gero, beharrezko tresnak izango dituzte beren udal baliabideak kudeatzeko.

Era berean, udalek, hiri-ondasun higiezinaren kasuan eta erabileren arabera, gehieneko tasa horietatik gora dauden karga-tasak onesteko aukera ere jasotzen da, udalek bitarteko egokiak izan ditzaten udal autonomian sakontzeko.

2017ko sortzapenean aplikatu beharreko tasari dagokionez, udalek erabakitzen badute Bizkaiko Foru Aldundiak —katastro-balio berriak aldatzearekin batera— informa dezala hiri- eta landa-ondasun higiezinentzako karga-tasa berriak aplikatuz Ondasun Higiezinaren gaineko Zergan ateratzen den kuotari buruz, udal horiek 2016ko uztailaren 1a baino lehen behin-behinean onetsi beharko dituzte karga-tasa horiek, eta Bizkaiko Foru Aldundiari jakinarazi. Horrela, subjektu pasiboek jakin ahal izango dute zer eragin izango duten katastro-balio berriek Zergaren kuota likidua zehazteko orduan.

Azkenik, hiri- eta landa-ondasun higieziinei 2017an aplikatu beharreko karga-tasak 2016ko abenduaren 31n oraindik onetsi eta argitaratu gabe dituzten udalei lehenengo xedapen gehigarriko bigarren zenbakian ezarritakoa aplikatuko zaie. Bertan ezartzen da, hain zuzen ere, halakoei automatikoki eta ordezkio moduan zerga honen ondoriozko 2016ko ekitaldiko presio fiskal orokor bera bermatzen duten karga-tasak aplikatuko zaizkiela, hiri-erabileren arabera bereizita, foru arau honen 8. artikulua ezarritako muga barruan.

Bizkaiko Kondaira Lurraldeko Foru Erakundearen Hautapen, Antolaketa, Erregimen eta Funtzionamenduari buruzko 1987ko otsailaren 13ko 3/1987 Foru Arauaren 55. artikuluko 1. eta 3. zenbakietan ezarritakoa betetzeko, memoria ekonomikoari buruzko txostena eta generoaren gaineko eraginaren ebaluazioari buruzko txostena doaz foru arau honekin batera.

1. artikulua. Zergaren izaera.



Ondasun Higiezinaren gaineko Zerga ondasun higiezinaren gaineko zuzeneko zerga da eta Bizkaiko Lurralde Historikoko udal-mugarteetako higiezinaren balioa kargatzen du, foru arau honetan ezarritako baldintzetan.

2. artikulua. Zerga-egitatea eta zerga honen menpe ez dauden kasuak.

1. Zerga honen zerga-egitatea hiri- zein landa-ondasun higiezinaren eta ezaugarri bereziko ondasun higiezinaren gaineko eskubide hauen titulartasuna da:

a) Ondasun higiezinaren edo haiek afektatuta dauden zerbitzu publikoen gaineko administrazio-emakida.

b) Azalera-eskubide erreala.

c) Gozamen-eskubide erreala.

d) Jabetza-eskubidea.

2. Aurreko zenbakian definitutako zerga-egitateetako bat gertatuz gero, bertan ezartzen den hurrenkeran, kasuan kasuko landa- edo hiri-ondasun higiezina ez da egongo zenbaki horretako gainerako modalitateen kargapean.

Ezaugarri bereziko ondasun higiezinaren kasuan ere hurrenkera horixe aplikatuko da, higiezinaren gaineko emakida-eskubideek higiezinaren luze-zabala agortzen ez duten kasuan izan ezik; izan ere, kasu horretan, zerga-egitatea sortuko da baita emakidari afektatuta ez dagoen higiezinaren zatiaren gaineko jabetza-eskubideagatik ere.

3. Zerga honen ondoreetarako, Higiezinaren Foru Katastroan hala deskribatzen direnak hartuko dira hiri- eta landa-ondasun higiezintzat zein ezaugarri bereziko ondasun higiezintzat.

4. Higiezin bat udal-mugarte batean baino gehiagotan badago, zerga honen ondoreetarako, haietako bakoitzean duen azaleraren zioz dagokio udal-mugarte bakoitzari.

5. Honako hauek ez daude zerga honen menpe:

a) Errepideak, bideak, gainerako lurreko bideak nahiz itsaso eta lehorren arteko jabari publikoko ondasunak zein jabari publiko hidraulikoko ondasunak, baldin eta erabiltzaileentzat aprobetxamendu publiko eta doakoa badute.

b) Udalen jabetzako ondasun higiezin hauek, udalerrian bertan kokatuta badaude:

- Erabilera publikoari afektatutako jabari publikoko ondasunak.



- Udalak berak zuzenean kudeatzen duen zerbitzu publiko bati afektatutako jabari publikokoak, hirugarren bati kontraprestazio bidez lagatako higiezinak direnean izan ezik.

- Ondare-ondasunak, hirugarren bati kontraprestazio bidez lagatako higiezinak direnean izan ezik.

3. artikulua. Salbuespenak.

1. Honako ondasun higiezin hauek salbuetsita daude:

a) Estatuaren, Euskal Autonomia Erkidegoaren, Bizkaiko Lurralde Historikoaren edo bertako toki-erakundeen jabetzakoak direnak, baldin eta zuzen-zuzenean afektatuta badaude nazio-defentsari, herritarren segurtasunari eta hezkuntza- zein espetxe-zerbitzuei.

b) Auzo-ondasunak eta amankomuneko auzo-mendiak.

c) Erregelamenduz ezarritako hazkunde moteleko espezieekin landatutako mendien azalera, baldin eta haien aprobetxamendu nagusia egurra edo kortxoa bada, betiere arbolen dentsitatea espezie bakoitzaren kasuan berezkoa edo normala dena bada.

Basoen administrazioak onartutako antolamendu-proiektuen edo plan teknikoen arabera baso-berritzeak edo zuhaiztien berritzeak egiten diren mendien azalera. Salbuespen honek hamabost urte iraungo du, salbuespenerako eskabidea egiten den zergaldiaren hurrengotik zenbaturik.

d) Eliza Katolikoaren higiezinak, Espainiako estatuak eta Egoitza Santuak 1979ko urtarrilaren 3an sinatutako Gai Ekonomikoei buruzko Akordioan ezarritakoaren arabera.

e) Elkarrekin konfesional ez-katolikoaren higiezinak, baldin eta elkarrekin legez aintzatetsita badaude, Estatuak halako elkarrekin sinatutako lankidetzak-akordioetan ezarritakoaren arabera — akordio horiek Espainiako Konstituzioaren 16. artikuluan aipaturikoak dira—.

f) Espainiako Gurutze Gorriaren higiezinak eta erregelamenduz zehazten diren antzeko beste erakunde batzuenak.

g) Euskal Herriko Unibertsitatearen higiezinak.

h) Atzerriko gobernuen higiezinak, haien ordezkari diplomatikoei edo kontsulatuetakoei edo haien erakunde ofizialei erabiltzeko direnean, baldin eta elkarrekikotasuna bada edo egoera hori indarrean dauden nazioarteko hitzarmenekin bat badator.

i) Indarrean dauden nazioarteko hitzarmenak direla bide salbuespena aplikatu behar zaien organismo edo erakundearen higiezinak.



j) Trenbideek atzemandako lurrak eta lur horietan dauden eraikinak, baldin eta geltokiak edo biltegiak badira edo lineak ustiatzeko ezinbestekoa den zerbitzuren baterako behar badira. Honenbestez, ez daude salbuetsita ostalaritzako, ikuskizunetako, merkataritzako eta aisialdirako establezimenduak, ez eta enplegatuak bizitzeko diren etxeak, zuzendaritza-bulegoak eta fabrika-instalazioak ere.

k) Udalei kontraprestaziorik gabe lagatako ondasun higiezinak, ondasunok dauden udalei lagatakoak badira.

2. Halaber, aurretik hala eskatuta, salbuetsita egongo dira hauek:

a) Euskal Kultur Ondareari buruzko 1990eko uztailaren 3ko 7/1990 Legearen 2. artikuluko 2. zenbakiko a) letran adierazitakoaren arabera monumentu diren ondasun higiezinak. Inbentariatutako ondasuntzat jotzen diren ondasun kulturalak ere salbuetsita egongo dira, baldin eta 1990eko uztailaren 3ko 7/1990 Legean ezarritako betekizunak betetzen badituzte.

Halaber salbuetsita daude Euskal Kultur Ondareari buruzko 1990eko uztailaren 3ko 7/1990 Legearen 2. artikuluko 2. zenbakiko b) letran aipatutako monumentu-multzoen parte diren ondasun higiezinak Salbuespen honek bakarrik hartuko ditu lege horretan ezarritako betekizunak betetzeaz gainera babes bereziko edo babes ertaineko araubideen barruan dauden ondasun higiezinak —kalifikatuak edo inbentariatuak—. Orobat salbuetsita daude Euskal Kultur Ondareari buruzko 1990eko uztailaren 3ko 7/1990 Legearen 44. artikuluan aipatzen diren zona arkeologikoetan dauden ondasun higiezinak, baldin eta delako zona hori ondasun kultural deklaratu bada (kalifikatu zein inbentariatua) eta, gainera, Eusko Jaurlaritzako sail eskudunak zona horretan esku-hartze arkeologikoa egin ondoren erabakitzen bada aurkitutako hondakinak bertan geratu behar direla eta ezin direla, beraz, ez desagerrarazi ez beste leku batera eraman.

b) Hezkuntza-itunen araubidean dauden ikastetxe pribatuak, harik eta ikastetxe itundu izaera hori galdu arte.

c) Gizarte-jarduerak egiteko baino ez diren ondasun higiezinak, baldin eta delako salbuespen hori kasu bakoitzean dagokion udalak erabaki badu eta kontuan hartuta, betiere, zer ezartzen den Irabazizkoak ez diren erakundeen zerga-araubideari eta mezenasgoari emandako zerga-pizgarriei buruzko 2004ko otsailaren 24ko 1/2004 Foru Arauan.

3. Ordenantza fiskaletan osasun-zentro publikoen titulartasuneko ondasunetarako hobaria arautu daiteke, baldin eta ondasunok zuzenean afektatuta badaude zentroen helburu zehatzak betetzeari. Salbuespen honen inguruko gainerako alderdiak —funtsezkoak zein formazkoak— ordenantza fiskalean ezarriko dira.

4. Udalek, zerga-bilketaren kudeaketa eraginkorragoa eta merkeagoa izan dadin, erabaki dezakete salbuetsita uztea ordenantza fiskalaren bidez ezarritako kopurua gainditzen ez duen kuota likidua duten ondasun higiezinak; hori dela eta, landa-ondasun higieziinei dagokienez kontuan hartu



ahal izango da foru arau honen 12. artikuluko 4. zenbakian ezarritakoa aplikatuz sortzen den kuota taldekatua.

Udalen ordenantza fiskalek ez badute ezartzen aurreko paragrafoan aipatutako zenbatekoa, zenbateko hori 6 euro izango da.

4. artikulua. Subjektu pasiboa.

1. Zerga honen subjektu pasiboak hauek dira, zergadun gisa: pertsona fisikoak eta juridikoak, Zergei buruzko Foru Arauaren 34. artikuluko 3. zenbakian aipatutako erakundeak eta testamentu-ahalordea erabiltzearen zain dauden jaraunspenak, baldin eta zerga honen zerga-egitatea den eskubide baten titular badira.

Emakidadun bat edo batzuk badira zergadun, emakidadun bakoitza bere kuotaren arabera izango da zergadun, eta, kuota erabakitzeko, kontuan hartuko da zer katastro-balio dagokion emandako azalerari eta zer katastro-balio dagokion emakida bakoitzari zuzenean lotutako eraikinari. Emakidadunek Bizkaiko Lurralde Historikoko Higiezinaren Foru Katastroari buruzko Foru Arauan aipatzen diren deklarazioak egiteko betebeharra badute ere, ondasun higiezinaren afektatuta edo atxikita dagoen ente edo erakunde publikoak edo ondasunaren administrazio eta kudeaketaren ardura duenak emakidei buruzko informazioa eman beharko dio Ogasun eta Finantza Sailari, erregelamenduz ezartzen diren modu eta baldintzetan.

Jabea zergaduna bada emakidek ukitzen ez duten azalera dela-eta, aurreko paragrafoan aipatzen den ente edo erakundeak haren ordezkotza gisa jardungo du, eta ezingo dio zergadunari jasanarazi berak ordaindutako zerga-zorren zenbatekoa.

2. Aurreko zenbakian ezarritakoa aplikatu behar bada ere, subjektu pasiboak ahalmena izango du berak jasandako zerga-zama beste batzuei jasanarazteko, zuzenbide erkideko arauak jarraituz.

Administrazio publikoak eta ente edo erakunde publikoak dagokien kuota likidoaren zatia jasanaraziko diete zergaren subjektu pasibo izan ez arren jabari publikoko ondasunak edo ondare-ondasunak kontraprestazio bidez erabiltzen dituztenei, eta azken horiek behartuta daude adierazitako kuota hori jasatera. Bada, bakoitzari jasanarazi beharreko kuota kalkulatzeko, kontuan hartuko da zer katastro-balio dagokion erabilitako azalerari eta zer katastro-balio dagokion erabilera-eskubidearen errentari edo lagapen-hartzaile bakoitzari zuzenean lotutako eraikinari.

3. Ondasun higiezinak pro indiviso badagozkie pertsona askori, katastroko titulartasuna bakoitzari dagokion kuotaren arabera esleitu zaio erkide, kide edo partaide bakoitzari eta, hala denean, haiek guztiek osatutako erkidegoari; erkidego hori identifikazio fiskaleko zenbakiaren bidez adieraziko da.

Kasu horretan, zerga-kuota zatitzea eskatu ahal izango da, baina, horretarako, behar-beharrezkoa da ordaintzera behartuta dauden guztien datu pertsonalak eta helbide fiskalak ematea.



Zerga-kuota ezingo da zatitu baldin eta zatiketaren ondorioz ateratzen diren kuotak txikiagoak badira, batetik, udal bakoitzak ezarritako gutxieneko kuota baino, zerga udalak berak kudeatzen badu, eta, bestetik, txikiagoak badira foru arau honen 3. artikuluko 4. zenbakian aipatzen den kuota baino, udalak eskuordetu egin badu zergaren kudeaketa, foru arau honen 13. artikuluan ezarritakoaren arabera.

4. Ondasun titulartasuna irabazpidezko ondasunen ezkontza-eraentzan edo ondasunen foru-komunikazioan dauden ezkontide biei edo izatezko bikote bateko kide biei —itundu duten ekonomia-eta ondare-araubidea aurrekoetako edozein dela— badagokie, likidazio bakarra egingo da beti eta ezingo da zerga-kuota zatitu.

5. artikulua. Afekzio erreala eskualdaketan eta erantzukizun solidarioa titularkidetasunean.

1. Zerga honen zerga-egitate diren eskubideen titulartasuna aldatzen bada, edozein arrazoi dela-eta, eskubideon xede diren ondasun higiezinak zerga-kuota osoa ordaintzeko erabili beharko dira, erantzukizun subsidiarioaren araubidean, Bizkaiko Lurralde Historikoko Zergei buruzko 2/2005 Foru Arauaren 42. artikuluko 1. zenbakiko d) letran ezarritakoaren arabera.

Horretarako, notarioek informazioa eskatuko diete bertaratuei, jakiteko ea bere aurrean eskuetsiko dituzten dokumentuen bidez eskualdatzen duten higiezonean zerga hau dela-eta ordaindu gabeko zorrik dagoen eta ohartaraziko diete ezen ondasunok zerga-kuota ordaintzeko erabili beharko direla.

2. Bizkaiko Lurralde Historikoko Zergei buruzko 2/2005 Foru Arauaren 34. artikuluko 3. zenbakian aipatutako erakundeetako partaidekide edo titularkideek solidarioki ordainduko dute zerga honen kuota, bakoitzak bere partaidetzari dagokiona, Higiezinaren Foru Katastroan hala inskribatuta badaude. Katastroan inskribatuta ez badaude, erantzukizuna hainbana eskatuko da beti.

6. artikulua. Zerga-oinarria.

Zerga honen zerga-oinarria ondasun higiezinaren katastro-balioa izango da, zeina Bizkaiko Lurralde Historikoko Higiezinaren Foru Katastroari buruzko Foru Arauan arautzen den.

7. artikulua. Kuota osoa eta kuota likidoa.

1. Zerga honen kuota osoa kalkulatzeko, zerga-oinarriari foru arau honetako hurrengo artikuluan aipatzen den karga-tasa aplikatu behar zaio.

2. Kuota likidoa kalkulatzeko, berriz, kuota osotik kendu egin behar dira foru arau honen 9. eta 10. artikuluetan ezarritako hobariak, halakorik aplikatzerik badago.



8. artikulua. Karga-tasa

1. Gutxieneko karga-tasa ehuneko 0,02 izango da hiri-ondasun higiezinak direnean, eta ehuneko 0,05, berriz, landa-ondasunak direnean; aldiz, gehieneko karga-tasa ehuneko 0,60 izango da hiri-ondasunen kasuan, eta ehuneko 0,50, berriz, landa-ondasunen kasuan.

2. Aurreko zenbakian xedatutakoa gorabehera, udalek karga-tasa ezberdinak ezar ditzakete hiri-erabileretarako, baina muga hauen barruan betiere:

- Gehienez ere ehuneko 3,00 industria-erabileretarako (I).
- Gehienez ere ehuneko 2,00 merkataritza-erabileretarako (C).
- Gehienez ere ehuneko 1,00, baina tasa bakarrarekin, gainerako erabileretarako, bizitegi-erabileretarako (V) eta beste erabileretarako (Y) izan ezik.

Aurreko artikuluan xedatzen denerako, hiri-erabilerak zehazterakoan kontuan hartu beharko da hiri-ondasun higiezinak balioztatzeari buruz katastroko araudian ezartzen dena.

3. Aurreko zenbakietan xedatutakoa aplikatuz ateratzen diren mugak errespetatzen dituztela, udalek, hiri-ondasun higiezinaren kasuan, karga-tasa handiagoak ezar ditzakete hiri-erabilera bakoitzerako, eraikinak balioztatzeari buruz katastroko araudian ezartzen diren erabilerak aintzat hartuta. Tasa horiek, gehienez ere, udalerrian erabilera bakoitzerako katastro-baliorik handiena duten hiri-ondasun higiezinaren % 10ari aplikatu ahal zaizkio. Horretarako, ordenantza fiskalak zehaztuko du zer balio-atalase dagokion erabileretako bakoitzari, eta hortik aurrera aplikatu ahal izango dira, hain zuzen ere, tasa handiago horiek.

Higiezin batek erabilera bat baino gehiago badu, eraikin edo barrunbe nagusiaren erabilerari dagokion tasa aplikatuko zaio.

4. Baldin eta, salbuespen moduan, katastro-balioak hainbat aldiz jarraian finkatzen edo berrikusten badira, baina ez batera, edo udalerriko higiezin askoren katastro-balioak aldatzen badira, udalak karga-tasa ezberdinak ezarri ahal izango ditu katastro-balio berria duten ondasunetarako nahiz ez dutenetarako.

5. Udalek urtero aldatu ahal izango dituzte karga-tasak, baina aplikatu behar diren urteko urtarrilaren 1a baino lehen onartuta eta argitaratuta egon behar dira.

Zerga hau Bizkaiko Foru Aldundiak zuzenean kudeatzen duen udalerrietan, udalak gehienez lau hamartarrekin finkatuko ditu karga-tasak.

9. artikulua. Nahitaezko hobariak.



1. Obra berriak zein berritzat har daitezkeen birgaitze-obrak egiten dituzten urbanizazioko, eraikuntzako eta higiezinaren sustapeneko enpresen jardueraren xede diren higiezinaren gaineko zerga-kuota osoaren % 50 eta % 90 arteko hobaria aplikatu ahal da, baldin eta interesdunek obra berriaren alta-deklarazioarekin batera eskatzen badute hobaria eta higiezina beren ibilgetuko ondasuna ez bada. Udalak horretaz ezer erabakitzen ez badu, higiezin horiei zenbaki honetan ezarritako hobarietatik handiena aplikatuko zaie.

Obrei ekin eta hurrengo zergalditik hasi eta obrak amaitu eta hurrengo zergaldira bitartean aplikatu ahal izango da hobari hau, baldin eta epe horretan benetan egiten badira urbanizazio- edo eraikuntza-obrak. Nolanahi ere, epe hori ezin da hiru zergaldi baino luzeagoa izan.

2. Babes publikoko etxebizitzak eta, Euskal Autonomia Erkidegoko arauen arabera, haiekin berdinetik ahal diren etxebizitzek % 50eko hobaria aplikatu ahal izango dute zergaren kuota osoan, behin betiko kalifikazioa eman eta hurrengo hiru zergaldietan.

Udalek zerga-kuota osoaren % 50era arteko hobaria ezarri ahal izango dute higiezin horietarako, aurreko paragrafoko epea igarotakoan. Hobariaren iraupena eta urteko zenbatekoa ordenantza fiskalean zehaztuko dira.

3. Nekazaritzako kooperatiben eta lurren taldekako ustiapenezko kooperatiben landa-ondasunek zerga-kuota osoaren % 95eko hobaria aplikatu ahal izango dute; horretarako, Kooperatiben Zerga Araubideari buruzko 1997ko urriaren 14ko 9/1997 Foru Arauan ezarritakoa hartu behar da aintzat.

4. Ordenantza fiskaletan zehaztuko dira hobariaren funtsezko eta formazko alderdiak, bai eta hobariok beste zerga-onura batzuekin zein kasutan batera daitezkeen ere.

10. artikulua. Hautazko hobariak.

1. Ordenantza fiskaletan zerga-kuota osoaren % 90era arteko hobaria ezarri ahal izango da legeriaren eta hirigintzako planen arabera nekazaritzari, abeltzaintzari, basozaintzari edo arrantzari edo antzeko arloren bati lotuta egoteagatik edo arlo horietako jarduerak nagusi izateagatik banakotuta dauden eta udalerriri bereko area edo gune finkatueta baino udal eskumeneko zerbitzu gutxiago, azpiegitura gutxiago edo ekipamendu kolektibo gutxiago dituzten area edo eremuetan kokaturiko hiru-ondasun higiezinatarako, baldin eta area edo gune horietako inguruabar ekonomikoak aintzat hartuz babes berezia behar dutela uste bada.

Ordenantza fiskalean ezarriko da biztanlegune, area edo guneek zer ezaugarri berezi eta eremu izan behar duten hobari hau aplikatzeko, bai eta eraikuntzen zer tipologia eta lurraren zer erabilera behar den hobari hau aplikatzeko; halaber ezarriko da ordenantza fiskal horretan hobariaren iraupena, urteko zenbatekoa eta funtsezko zein formazko gainerako alderdi guztiak.

2. Ordenantza fiskaletan zerga-kuotaren % 100era arteko hobaria ezarri ahal izango da monumentu-multzoetan, alde historikoetan edo kultur guneetan dauden ondasun higiezinatarako;



horretarako, higiezinaren titularrek betebeharra dute haren egitura, fatxada, estalkia edo antzeko elementu guztiak mantentzeko.

Aurreko paragrafoan aipatutako hobariaren gainerako alderdiak, funtsezkoak zein formazkoak, ordenantza fiskalean ezarriko dira.

3. Ordenantza fiskalean zerga-kuota osoaren % 90era arteko hobaria ezarri ahal izango da ezaugarri bereziko ondasun higiezin multzo bakoitzarentzat. Hobari horren iraupena, urteko zenbatekoa eta gainerako alderdiak, funtsezkoak zein formazkoak, ordenantza fiskalean zehaztuko dira.

4. Ordenantza fiskalean zerga-kuota osoaren %50eko gehieneko hobaria ezar daiteke eguzki-energiaren aprobetxamendu termiko edo elektrikorako sistemak instalatzen dituzten ondasun higiezinatarako. Hobari hau aplikatzeko, ezinbestekoa izango da beroa sortzeko instalazioan administrazio eskudunak homologatutako kolektoreak jartzea. Hobari horren gainerako alderdiak, funtsezkoak zein formazkoak, ordenantza fiskalean zehaztuko dira.

5. Ordenantza fiskalek zerga-kuota osoaren % 50era arteko hobaria arautu ahal izango dute Eusko Jaurlaritzak duen «Etxebizitza Hutsen Programa»ren edo merkatu libreko etxebizitzaren alokairurako bitartekaritzako programan edo erkidegoaren, aldundien zein udalen beste etxebizitza-programa batzuen arloan lagatzen diren ondasun higiezinarentzat.

6. Ordenantza fiskalek ondasun higiezinaren gaineko zergaren kuota osoaren % 100era arteko hobaria ezarri ahal izango dute hondamendi naturalak jasandako eremuetan dauden higiezinatarako.

7. Ordenantza fiskalek foru arau honen 2. artikuluko 1. zenbakiko a) letran aipatutako eskubidearen titulartasunaren ondoriozko zergaren kuota osoaren % 95era arteko hobaria ezarri ahal izango dute, egoiliarrentzako udal aparkalekuetako partzelen gaineko titulartasunaren kasuan.

11. artikulua. Sortzapena eta zergaldia.

1. Zerga zergaldiko lehen egunean sortuko da.

2. Zergaldia urte naturala da.

3. Higiezinaren Foru Katastroari deklaratu edo komunikatu behar zaizkion egitate, egintza edo negozioak katastroan ondorioak sortzen dituzten unearen osteko zergaren sortzapena gertatzen den unean izango dira eraginkorrak, baina eraginkorrak izateko ez dago zertan haiei dagozkien administrazio-egintzen jakinarazpena egin behar.

Katastro-balioak berrikusteko edo aldatzeko prozeduren ondorioz emandako egintzak Bizkaiko Lurralde Historikoko Higiezinaren Foru Katastroari buruzko Foru Araua zehazten den baldintza beretan izango dira eraginkorrak.



12. artikulua. Zergaren kudeaketa.

1. Zerga hau katastroko erroldan jasotako informazioan oinarrituta kudeatzen da, eta katastroko errolda hori urtero prestatuko da, udal-mugarte bakoitzerako, Higiezin Foru Katastroari buruzko arautegi erregulatzailean ezarritakoarekin bat etorriz. Errolda egitea Bizkaiko Foru Aldundiari dagokionean, udalen esku egongo da, eta interesdunek Bizkaiko Foru Aldundiaren Interneteko orrian izango dute erroldarako sarbidea; horretarako, kontsulta-formulario batzuk egongo dira, identifikazio-datu batzuk eskatuko dituztenak datu pertsonalak behar bezala zaintzen direla ziurtatzeko

2. Katastroko errolda jendaurrean jartzeko epea amaituta eta errekursoak eta/edo erreklamazioak ebatzita, udalek ordainagiriak prestatuko dituzte eta ordainagiritan jasoko diren likidazioak biltzen dituzten kobrantza-zerrendak onartuko dituzte; hala ere, beti egongo da aukera Toki Ogasunei buruzko 2005eko abenduaren 16ko 9/2005 Foru Arauaren 8. artikuluan adierazten diren elkarlanerako formulak erabiltzeko.

3. Bizkaiko Foru Aldundiak ordainagiriak egin eta kobrantza- zerrendak onesteko eginkizuna eskuordetzaren bidez bere gain hartuta daukanean, zerrendak udalen esku egongo dira, eta interesdunek Bizkaiko Foru Aldundiaren Interneteko orrian izango dute zerrendetarako sarbidea; horretarako, kontsulta-formulario batzuk egongo dira, identifikazio-datu batzuk eskatuko dituztenak datu pertsonalak behar bezala zaintzen direla ziurtatzeko.

4. Subjektu pasibo bati dagozkion zerga honen kuotak kobrantza-dokumentu bakarrean taldekatu ahal izango dira, baldin eta udalerri berean dauden landa-ondasunei badagozkie.

13. artikulua. Eskumen-eremua.

1. Ondasun Higiezinaren gaineko Zerga kudeatu, ikuskatu eta — hala borondatezko epean nola epe exekutiboan— biltzeko ahalmenak zein zerga-kudeaketa bidean emandako egintzak berrikusteko ahalmena zergapeko ondasun higiezinak kokatuta dauden udal-mugarteko udalari dagozkio.

2. Hain zuzen ere, udalei dagokie bai salbuespenak eta hobariak aitortzea eta ukatzea, bai zerga-zorrak zehazteko likidazioak egitea, bai kobrantza-dokumentuak jaulkitzea, bai zor ez diren sarreraren itzulketarako espedienteak ebatzea, bai egintza horien guztien aurka jartzen diren errekursoak ebatzea, bai eta gai horietan guztietan zergadunari laguntza zein aholkuak emateko beharrezkoak diren jarduketak egitea ere.

3. Udalek Bizkaiko Foru Aldundiari eskuordetu diezazkiokete aurreko bi zenbakietan zehazten diren eginkizunetako guztiak edo batzuk, erregelamenduz ezartzen diren baldintzetan.

XEDAPEN GEHIGARRIAK



Lehenengoa. 2017rako karga-tasak.

1. Udalek erabakitzen badute Bizkaiko Foru Aldundiak —katastro-balio berriak aldatzearekin batera— informa dezala hiri- eta landa-ondasun higiezinentzako karga-tasa berriak aplikatuz Ondasun Higiezinaren gaineko Zergan ateratzen den kuotari buruz, udal horiek 2016ko uztailaren 1a baino lehen behin-behinean onetsi beharko dituzte karga-tasa horiek, eta Bizkaiko Foru Aldundiari jakinarazi.

2. Udalek, nahiz eta haien udal-mugarteetako katastro-balioak berrikusteko prozedurak amaituta egon, 2017ko urtarrilaren 1a baino lehen onetsi gabe badituzte hiri- eta landa-ondasun higiezinentzako karga-tasa berriak, jarraian adieraziko diren formulak aplikatuz ateratzen diren karga-tasak aplikatuko dituzte, zuzenean eta automatikoki.

a) Hiri-ondasun higiezinaren kasuan, formula hau da:

Formula horretan:

$PC(n-1)$ hiri-ondasun higiezinak Katastroko erroldan duten zenbatekoa, txostena egiten den urtean.

$tg(n-1)$ txostena egiten den urtean udal bakoitzean indarrean dagoen karga-tasa.

$PC(n)$, hiri-ondasun higiezinak Katastroko erroldan duten zenbatekoa, onetsitako txosten berriak aplikatzearen ondorioz.

Hiri-erabileretarako bereizitako lau karga-tasak ezartzearen, foru arau honetako 8. artikuluan ezarritako muga barruan, artikulua horretan adierazitako hiri-erabilera bakoitzari aplikatuko zaio formula hori.

b) Landa-ondasun higiezinaren kasuan, formula hau da:

Formula horretan:

$PC(n-1)$ landa-ondasun higiezinak Katastroko erroldan duten zenbatekoa, txostena egiten den urtean.

$tg(n-1)$ txostena egiten den urtean udal bakoitzean indarrean dagoen karga-tasa.



PC(n), landa-ondasun higiezinak Katastroko erroldan duten zenbatekoa, onetsitako txosten berriak aplikatzearen ondorioz.

3. Aurreko zenbakiko formulatik ateratzen diren karga-tasak indarrean mantenduko dira harik eta udal horiek tasa berriak onartu arte.

4. Udal bakoitzak Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratuko ditu formulak aplikatzearen ondorioz ateratzen diren karga-tasak, eta haien berri emango dio Bizkaiko Foru Aldundiari.

Bigarrena. Izatezko bikoteak.

Foru arau honen ondorioetarako, izatezko bikoteak aipatzen direnean ulertuko da bikoteok Izatezko bikoteak arautzen dituen 2003ko maiatzaren 7ko 2/2003 Legean xedatutakoaren arabera eratutakoak direla.

Hirugarrena. Hiri-Lurren Balioaren Gehikuntzaren gaineko Zergari buruzko 1989ko uztailaren 30eko 8/1989 Foru Arauaren aldaketa.

Berridatzi egin da Hiri-Lurren Balioaren Gehikuntzaren gaineko Zergari buruzko 1989ko ekainaren 30eko 8/1989 Foru Arauaren 5. artikuluko 1. zenbakia, eta honela geratu da idatzita:

«1. Zergaren karga-tasa udal bakoitzak finkatuko du; eta ezin da izan % 10 baino handiagoa.

Aurreko paragrafoan adierazitako mugari lotuz, udalek aukera izango dute edo karga-tasa bakarra finkatzeko edo karga-tasa bana finkatzeko aurreko artikuluko 3. zenbakian balio-gehikuntza sortzeko adierazitako aldietarako.»

XEDAPEN IRAGANKORRA

Bakarra. Ezaugarri bereziko ondasun higiezinak.

Bizkaiko Lurralde Historikoko Higiezinak Foru Katastroari buruzko Foru Arauaren bigarren xedapen iragankorra aplikatu behar zaien ezaugarri bereziko ondasun higieziinei Ondasun Higiezinak gaineko Zergari buruzko 1989ko ekainaren 30eko 9/1989 Foru Arauaren arabera aplikatu zaie ordenantza fiskaletan ezarritako karga-tasa, arau horrek foru arau hau indarrean jarri aurretik indarrean zuen idazketaren arabera.



XEDAPEN DEROGATZAILEA

2017ko urtarrilaren 1etik aurrera derogaturik geratuko dira foru arau honetan xedatutakoaren aurka edo kontraesanean dauden maila bereko edo txikiagoko xedapen guztiak, eta derogatu egingo da, bereziki, 1989ko ekainaren 30eko 9/1989 Foru Araua, Ondasun Higiezinaren gaineko Zergari buruzkoa.

AZKEN XEDAPENAK

Lehenengoa. Arauak emateko gaikuntza

Gaitasuna ematen zaie Bizkaiko Foru Aldundiari eta Ogasun eta Finantzen foru diputatuari foru arau hau garatzeko eta aplikatzeko beharrezko diren xedapen guztiak eman ditzaten.

Bigarrena. Indarrean jartzea eta ondorioak

Foru arau hau Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean jarriko da indarrean, eta 2017ko urtarrilaren 1etik aurrera sortuko ditu ondorioak.

PROIEKTUA: XXXX/2016 FORU ARAUA, XXXXren XX(e)koa, Bizkaiko Lurralde Historikoko Higiezinaren Foru Katastroari buruzkoa.

Ondasun Higiezinaren gaineko Zergari buruzko 1989ko ekainaren 30eko 9/1989 Foru Arauak, indarrean egon den hogeita bostetik gora urteetan, tokiko zergapetzearen muina den zerga hori arautzeaz gainera, Bizkaiko Lurralde Historikoko Higiezinaren Katastroren inguruko guztia ere arautu du. Baina sistematika argirik gabe eta gai bien arteko lotura-puntu gisa OHZren zerga-oinarria zehazteko ondasun higiezinaren katastro-balioa aplikatzea erabilita, foru arau horrek Higiezinaren Foru Katastroa arautzen zuen eta katastro-balioak finkatu, berrikusi, aldatu eta eguneratzeko prozedura ezartzen zuen.

Bada, arau hori denbora luzean egon denez indarrean, aldaketa ugari eta garrantzitsuak egin zaizkio haren edukiari, eta Katastroaren arloan nabarmentzekoa da 2003ko martxoaren 26ko 7/2003 Foru Arauak, Tokiko zerga-ordainketaren araubidea eraldatzekoak, eragin zuena; gainera, eremu propioa eman behar zaio gai horietako bakoitzari, nahitaez lotuta dauden arren printzipio ezberdinei erantzuten diete-eta. Horrenbestez, gomendagarria da gaiok arautzeko tresna arauemaile autonomoak onestea. Horrela, 1989ko ekainaren 30eko 9/1989 Foru Arauaren edukia bitan zatituko da: batetik, Bizkaiko Lurralde Historikoko Higiezinaren Foru Katastroari buruzko foru arau honetan; bestetik, Ondasun Higiezinaren gaineko Zergari buruzko foru arau berri batean.

Eragile askok erabiltzen dute katastroko informazioa, azken urteetan lurraldeari buruzko informazioa biltzeko plataforma handi bihurtu baita, zeina administrazio publikoen, fede-emaileen, enpresen eta herritarren eskura dagoen, baina, hala ere, horrek ez du inondik inora hutsaltzen Foru Katastroak duen tributua-izaera. Izan ere, indartu egiten du izaera hori, informazio hori erreferentzia da-eta ez soilik Ondasun Higiezinaren gaineko Zergarentzat, baina baita toki-eremukoko beste zerga batzuentzat eta Bizkaiko Lurralde Historikoko beste tributua batzuentzat ere.

Higiezinaren Foru Katastroaren arauketak (Bizkaiko Foru Aldundiaren eskumenekoa da, eta foru arau honetan jasotzen da) oro har jasotzen du, modu kontinuistan, aurreko araudiaren funtsezko zatia, asmo bakoitzarekin: batetik, hura sistematizatu eta aberasteko, urteotan pilatutako esperientzia ikusita, eta, bestetik, arauketa hori Bizkaiko Lurralde Historikoko Zergei buruzko Foru Arauak jasotzen duen oinarritzko esparru komunari egokitzeko.

Foru arau honek, beste ororen gainera, Foru Katastroaren definizio objektiboa jasotzen du, eta esaten du zer den: erregistro administratibo bat, tributuen orokortasun- eta justizia-printzipioen zein baliabide publikoak ekitatez esleitzeko printzipioaren zerbitzura dagoena, eta, horretarako, Bizkaiko Foru Aldundia lankidetzan arituko da beste administrazio publikoekin, auzitegi eta epaitegiekin zein Jabetza Erregistroarekin, bakoitzaren eginkizunak eta eskumenak betetzearren.

Foru arau honek beste zenbait berritasun garrantzitsu ere badakartza, eta haien artetik azpimarratu daiteke, batetik, definitu egiten direla ondasun higiezinaren kontzeptua eta izaera, oro har,



eta, bereziki, katastroko elementua (ondasun higiezin bat osatzen duten zatietako bakoitza da, baldin eta beren ezaugarri fisiko, funtzional, administratibo eta juridikoengatik bereizi egin badaiteke), eta, bestetik, katastroko titularraren kontzeptua zehazten da. Gainera, ondasunen hirugarren kategoria bat definitzen da, hiri- eta landa-ondasun higiezinekin batera: ezaugarri bereziko ondasun higiezinak. Ondasunok erabilera espezializatuko multzo konplexua osatzen dute, eta, horrenbestez, ezin dakieke balioztatze kolektiboa eta/edo karakterizazio normalizatua egin.

Foru arau honekin lortu nahi den beste helburuetako bat, aurreko arauketarekin alderatuta, Foru Katastroaren kudeaketaren inguruko gaiak berrantolatu eta garatzea da, eta, hala, ezartzen da nahitaezkoa dela ondasun higiezinak Higiezinaren Foru Katastroan sartzeari eta handik ateratzea, bai eta higiezinaren ezaugarrien aldaketak eranstea ere. Horretarako, katastroko aldaketak deklaratu, komunikatu eta erregularizatzeko prozedurak arautzen dira, bai eta desadostasunak ongitu eta zuzentzeko prozedura zein Katastroa eguneratzekoa ere. Katastro-balioei dagokienez, haiek zehazteko irizpideak eta prozedura finkatzen dira; baliook zehazteko, bada, dagokion balio-txostena onetsi eta aplikatuko da.

Foru arau hau izapidetzearekin batera, Bizkaiko Foru Aldundiak martxan dauka hiri- eta landa-ondasun higiezinaren katastro-balioen txosten berriak onesteko prozedura, eta, bigarren fase batean, ezaugarri bereziko ondasun higiezinarenak, horretarako duen eskumen eskusiboa erabiliz eta Bizkaiko Lurralde Historikoko udalekin lankidetzan. Logikoa denez, indarrean egon diren balio-txostenak onartu zirenetik orain arte denbora asko igaro denez, balio berriak nabarmen handiagoak izango dira aurrekoak baino, eta horrek ondorioak izango ditu, jakina, Ondasun Higiezinaren gaineko Zergaren 2017ko urtarilaren 1etik aurrerako sortzapenetan zerga-oinarria kuantifikatzeko orduan, katastro-balioak eratzeko baitu oinarri hori.

Foru arau honen beste berritasun bat —katastroa berrikusteko prozedurari estu-estu lotua— jakinarazpen-sistemari dagokio; izan ere, araudi berrian zehazten da, segurtasun juridikoaren printzipioa bermatzearren, jakinarazpena egin daitekeela edo bitarteko elektronikoa erabiliz, edo interesduna pertsonatuz, edo bitarteko ez-elektronikoa erabiliz egindako jakinarazpen pertsonal eta zuzenaren bidez. Kontuan hartuta gure lurralde historikoan balioztatze berria egin behar zaien hiri- eta landa-ondasun higiezinak bi milioitik gora direla, prozedura oso konplexua dela eta Bizkaiko Foru Administrazioak haien jakinarazpenak egiteko erabili izan duen sistemak —jakinarazpen pertsonalak— kostu ekonomiko handia izango lukeela, ez da gomendagarria, baliabide publikoak erabiltzerakoan bete beharreko eraginkortasun printzipioaren arabera, sistema hori orokortu eta modu eksklusiboan erabili nahi izatea. Horren ondorioz, erregelamendu bidez ezarriko dira jakinarazpena pertsonatuta zein bitarteko elektronikoa erabiliz egiteko betekizunak eta baldintzak.

Foru arau honek 52. artikulua ditu, honela banatuta: atariko titulu bat eta beste zazpi titulu, gehi xedapen gehigarri bi, hiru xedapen iragankor, xedapen derogatzaile bat eta azken xedapen bi.

Atariko titulua eta I. titulua Higiezinaren Foru Katastroaren informazio-printzipioen eta haren edukiaren ingurukoak dira, bai eta ondasun higiezinak eta katastroko titularrak kategorizatzearen ingurukoak ere.



II. titulua 6 kapitulutan banatzen da, eta Higiezin Foru Katastroa eratzeari eta mantentzeari buruzko guztia arautzen du. Jarraiko titulu biak, III.a eta IV.a, katastro-kartografiari buruzkoak eta Higiezin Foru Katastroari laguntzeko betebeharrari zein informazio-trukeari buruzkoak dira, hurrenez hurren.

V. titulua, bestalde, Katastroko erreferentzia dokumentu batean jasota uztearen ingurukoa da, eta jasota uzte hori derrigorrezkoa da honako hauetan: eskubide errealeen inguruko egitate, egintza edo negozioak jasotzen dituzten tresna publikoetan, manamendu eta ebazpen judizialetan, administrazio-espediente eta -ebazpenetan zein bestelako agirietan. VI. tituluak, berriz, Katastroko informaziorako sarbidea arautzen du.

VII. tituluak, azkenik, arau-hausteen eta zehapenen araubide espezifikoa eratzen du; izan ere, arlo hori, aurretik, Zergei buruzko Foru Arauan ezarritako araubide orokorraren arabera eraentzen zen.

Bizkaiko Kondaira Lurraldeko Foru Erakundeen Hautapen, Antolaketa, Erregimen eta Funtzionamenduari buruzko 1987ko otsailaren 13ko 3/1987 Foru Arauaren 55. artikuluko 1. eta 3. zenbakietan ezarritakoa betetzeko, memoria ekonomikoari buruzko txostena eta generoaren gaineko eraginaren ebaluazioari buruzko txostena doaz foru arau honekin batera.

Atariko titulua.

1. artikulua. Helburua, izaera eta aplikazio-eremua.

1. Foru arau honen helburua Higiezin Foru Katastroa arautzea da, Bizkaiko Lurralde Historikoko ondasun higiezin erregistro administratiboa den heinean, eta arautzea, halaber, ondasun horien balioztatzea, indarrean dagoen araudiak ezarritako ondorioetarako.

2. Higiezin Foru Katastroa Bizkaiko Foru Aldundiaren mende dago, eta bertan deskribatzen dira Bizkaiko Lurralde Historikoko hiri- eta landa-ondasun higiezinak zein ezaugarri bereziko ondasun higiezinak.

3. Foru arau hau Bizkaiko Lurralde Historiko osoan aplikatuko da, eta ez ditu galarazten Jabetza Erregistroaren eskumen eta eginkizunak, ez eta ondasun higiezinak erregistro horretan inskribatzeak sortzen dituen funtsezko ondorio juridikoak ere.

2. artikulua. Higiezin Foru Katastroaren informazio-printzipioak.



1. Katastroko informazioa tributuen orokortasun- eta justizia-printzipioen zein baliabide publikoak ekitatez esleitzeko printzipioaren zerbitzura egongo da, eta, horretarako, Bizkaiko Foru Aldundia beste administrazio publikoekin, auzitegi eta epaitegiekin zein Jabetza Erregistroarekin lankidetzan arituko da, bakoitzaren eginkizunak eta eskumenak betetzearren.

2. Halaber, lurraldeari buruzko informazioa behar duten politika publikoen eta herritarren eskueran egongo da, foru arau honen VI. tituluan ezarritako baldintzetan.

3. artikulua. Edukia.

1. Hiri- zein landa-ondasun higiezinak eta ezaugarri bereziko ondasun higiezinak datuen multzoak osatzen du Higiezinak Foru Katastroa, ondasunon ezaugarri fisiko, ekonomiko eta juridikoekin. Bertan, haien azalerak, kokapena, mugak, laborantza motak edo aprobetxamenduak, erabilera edo xedea, eraikinen kalitatea, irudikapen grafikoa, katastro-balioa eta katastroko titulartasuna islatuko dira. Katastroko erreferentziak ere jasoko ditu, katastroko ondasun higiezinak identifikazio-kode gisa, foru arau honen I. tituluan ezarritako baldintzetan.

2. Higiezinak Foru Katastroan eransketa bat sor lezaketen egitate, egintza edo negozioak jasotzen dituzten agiri publikoetan erantsi egin behar da aurreko zenbakian adierazitako ezaugarriak egiaztatzen dituen katastro-ziurtagiri deskribatzaile eta grafikoa, lehentasunez bide telematikoa erabiliz lortutakoa; Jabetza Erregistroan ere erantsi behar da, lege ezarritako kasuetan. Era berean, ziurtagiriok administrazio-prozeduretan ere erantsi behar dira, higiezinak deskribatze fisikoa egiaztatze bitarteko gisa.

3. Katastroaren datu-basean jasotako datuak benetakoak direla uste izango da, tributuei buruzko arautegi orokorrean araututako baldintzetan, Jabetza Erregistroan jasotako datuek beste arlo batzuetan sor litzaketen ondorio juridikoen kalterik gabe.

4. artikulua. Eskumenak.

1. Higiezinak Foru Katastroa eratzea eta mantentzea Bizkaiko Foru Aldundiaren eskumen eksklusiboa da, bai eta katastroko informazioaren zabalkundea egitea ere. Eginkizunon artean daude, besteak beste, katastroko datuen kontserbazio, berritze eta berrikusketa, errolda prestatzea, datuen ikuskaritza eta katastro-kartografia prestatu eta kudeatzea. Eginkizunok, bada, Ogasun eta Finantza Sailak beteko ditu, zuzenean edo udalekin edo beste toki-erakunde batzuekin sinatutako lankidetzak-hitzarmenen bidez, erregelamenduz ezartzen diren baldintzetan.



2. Aurreko zenbakian ezarritakoa gorabehera, balio-txostenak prestatzeko eta onesteko goi-eginkizuna —lurzorua zedarritzatu aurretik egingo dena, beharrezkoa bada— eta katastro-balioak finkatu, berrikusi, aldatu eta eguneratzeko eginkizuna Ogasun eta Finantza Sailak beteko du beti, foru arau honetan arautzen diren prozeduren arabera.

I. titulua. Ondasun higiezinak eta katastroko titularrak.

I. kapitulua. Ondasun higiezinak.

5. artikulua. Ondasun higiezinaren kontzeptua eta izaera.

1. Ondasun higiezinak, katastroari dagokionez, izaeraren arabera sailkatzen dira, honela: hiri-ondasun higiezinak, landa-ondasun higiezinak eta ezaugarri bereziko ondasun higiezinak.

2. Katastroaren ondorioetarako, hau izango da ondasun higiezina: udal-mugarte batean kokatutako partzela edo lur-zati bat, poligono batean mugatuta dagoena pertsona baten jabetzakoa edo pro indiviso askoren jabetzakoa izateagatik. Halakorik badago, eremu horretan kokatutako eraikinak ere definizio horren barruan sartuko dira.

3. Hauek ere ondasun higiezintzat joko dira:

a) Eraikinetako elementuak, aprobetxamendu independentearen xede izan badaitezke eta jabetza horizontaleko araubide bereziaren pean badaude. Halaber zenbait elementu pribatibok eratzen duten multzoa ere ondasun higiezintzat joko da, elementuok elkarri lotuta badaude eta egintza-batasunean eskuratu badira, eta, erregelamenduz zehaztutako baldintzetan, titular baten erabilera eta luperketa eskusibo eta iraunkorrera atxikita pro indiviso dauden trastelekuak eta aparkalekuak.

Elementu erkideak, katastro-balioztatzea egiteko soil-soilik, dagozkien higieziei esleituko zaizkie, erregelamenduz ezartzen den eran.

b) Ezaugarri bereziko ondasun higiezinak, foru arau honen 9. artikuluan definitzen direnak.

c) Azalera-eskubide baten espazio-eremua eta administrazio-emakida batena.



4. Artikulu honetako 1. zenbakian ezarritakoaren ondorioetarako, hauek hartuko dira eraikuntzatzat:

a) Eraikinak, kontuan izan gabe zer elementu erabili diren haiek eraikitzeke, eraikinok zer kokaleku duten, eraikinok zer lurzoru motatan altxatu diren eta zer erabilera ematen zaien, nahiz eta eraikinak dauden lurzorua ez izan eraikuntzaren jabearena.

b) Urbanizatzeko eta hobekuntza-lanak, esaterako, lur-berdinketak eta estali gabeko espazioak erabiltzeko egiten direnak. Estali gabeko espazioak, berriz, hauek izango dira: merkaturako erabiltzen diren esparruak, aire zabaleko biltegiak, kirola egiteko zelai eta instalazioak, moilak, aparkalekuak eta eraikuntzei atxikitako espazioak.

c) Presak, ur-jauziak eta urtegiak, haien hondoa edo ontzia barne.

d) Industria-, merkataritza-, kirol- eta jolas-instalazioak; nekazaritza, abeltzaintza, basogintza eta arrain-hazkuntzako instalazioak. Halakotzat hartuko dira, hain zuzen, instalazioak kokatuta dauden lurrari modu finkoan lotuta dauden elementuak eta, bereziki, dikeak, tankeak, zamatzeke tokiak, moilak, pantalanak eta berotegiak; makineria eta tresneria aparte utziko dira, baldin eta inolako zalantzarik gabe instalazioaren parte ez badira.

e) Energia ekoitzi, biltegitatu eta banatzeko mota guztietako instalazioak, komunikaziorako eta pertsonen garraiorako erabiltzen diren azpiegitura guztiak, ibilgailuak edo aireontziak, bai eta jariakinak eta energia eraman eta garraiatzeko azpiegiturak ere.

5. Katastroaren ondorioetarako, inoiz ere ez dira eraikuntzatzat hartuko estalpe edo aterpe txikiak, baldin eta haiek eraikitzeke material arin eta iraungaitzak erabili direnez, eraikuntzok bakarrik erabil badaitezke lurra hobeto aprobetxatzeko, soroak babesteko, abereak aldi batez edukitzeko edo loturik dauden jardueran erabiltzen diren tresna eta lanabesak gordetzeko.

6. artikulua. Katastroko elementua.

1. Katastroko elementua katastroko informazioaren eta balioztatzearen erreferentzia-unitatea da, hots, ondasun higiezin bat osatzen duten zatietako bakoitza, baldin eta beren ezaugarri fisiko, funtzional, administratibo eta juridikoengatik bereizi egin badaiteke.



2. Ondasun higiezin bakoitza katastroko elementu batek edo gehiagok osatuko dute, bai eta, hala denean, zenbait ondasun higiezintzat erkideak diren katastroko elementuen partaidetza-kuotak ere.

3. Zenbait ondasun higiezintzat erkideak diren katastroko elementuen karakterizazioa eta balioztatzea egiteko, gainerako katastroko elementuei aplikatutako irizpide berberak erabiliko dira.

4. Katastroko elementu bakoitza katastroko erreferentzia bakar eta iraunkor baten bidez identifikatuko da, zeina erregelamenduz zehaztuko den; nolahi ere, Bizkaiko Foru Aldundiak ahalmena izango du ondasun higiezin bakoitzerako identifikatzaile propio bat ere ezartzeko.

7. artikulua. Hiri-ondasun higiezinak.

1. Katastroaren ondorioetarako, hauek dira hiri-ondasun higiezinak:

a) Hiri-lurzorua, eta honako hau hartuko da hiri-lurzorutzat:

- Hirigintza-plangintzan hiri-lurzoru gisa sailkatutako lurzorua.

- Hirigintza-plangintzan lurzoru urbanizagarri sektorizatu gisa sailkatutako lurzorua.

- Hirigintza-plangintzan lurzoru urbanizagarri sektorizatugabe gisa sailkatutako lurzorua, sektorizatze-plana onartzen den unetik aurrera.

- Hauek dituzten lurrak: bide zolatuak edo espaloi-zintarriak, eta, gainera, estolderia, ur-hornidura, energia elektrikoaren hornidura eta argiteria publikoa ere badituztenak.

- Hiri-eraikuntzek okupatutako lurzorua.

Tratamendu bera izango dute nekazaritza arloko legedian xedatutakoaren kontra zatikatzen diren lurrek, baldin eta zatikatze horrek nekazaritza-erabilera hutsaltzen badu.

b) Hiri-eraikuntzak: halakotzat joko dira hurrengo artikuluan berariaz landa-izaerakotzat kalifikatzen ez diren eraikuntza guztiak.

2. Aurreko zenbakian ezarritakotik kanpo geratuko dira ezaugarri bereziko ondasun higiezin batean sartuta dauden lurzoruak eta eraikuntzak.



8. artikulua. Landa-ondasun higiezinak.

1. Katastroaren ondorioetarako, hauek dira landa-ondasun higiezinak:

a) Aurreko artikuluan xedatutakoaren arabera hiri-lurzoru ez diren lurzoruak.

b) Landa-izaerako eraikuntzak. Hauek hartuko dira horrelakotzat: nekazaritza, abeltzaintza, arrain-hazkuntzako edo basogintzako eraikinak eta instalazioak, landa-lurretan badaude eta jarduera horiek garatzeko ezinbestekoak badira.

Aurrekoa gorabehera, halako jardueraren bat garatzeari lotuta dauden eraikinak hiri-ondasun higiezintzat hartuko dira, baldin eta eraikinok bizitegi- edo turismo-erabilera duen elementuren bat badute.

2. Aurreko zenbakian ezarritakotik kanpo geratuko dira ezaugarri bereziko ondasun higiezin batean sartuta dauden lurzoruak eta eraikuntzak.

9. artikulua. Ezaugarri bereziko ondasun higiezinak.

1. Ezaugarri bereziko ondasun higiezinak erabilera espezializatuko multzo konplexua osatzen dute, balioztatze kolektiboa eta/edo karakterizazio normalizatua egin ezin dakiokena. Bada, multzo hori lurzoruak, eraikinek, instalazioek eta urbanizatzeko eta hobekuntza-lanek osatzen dute, eta, izaera unitarioa dutelako eta funtzionatzeko behin betiko lotuta daudelako, katastroari begira ondasun higiezin bakartzat eratzeko dira.

2. Aurreko zenbakian ezarritakoarekin bat, besteak beste talde hauetakoak joko dira ezaugarri bereziko ondasun higiezintzat:

a) Besteak beste energia, gasa, petrolioaren produktu finduak eta deribatuak ekoitzi, biltegiatu eta banatzeko direnak, instalazio termiko, eoliko eta fotovoltaikoak barne.

b) Presak, ur-jauziak eta urtegiak, haien hondoa edo ontzia barne, ureztapenerako soilik direnak izan ezik.

c) Ordainpeko errepide eta tunelak eta trenbideak.

d) Aireportuak, merkataritzako portuak eta tren-geltokiak.



e) Ondasun higiezinak beste edozein multzo, baldin eta bere ezaugarri espezifikoak direla-eta balioztatze kolektiboa eta/edo karakterizazio normalizatua egin ezin dakioken multzo espezializatua osatzen badute.

3. Higiezinok Higiezinak Foru Katastroan inskribatu eta balioztatzeko, instalazioetan sartuta dagoen makineria ere kontuan hartuko da, bai eta fisikoki instalazioen parte dena edo haiekin lotura funtzionala duena ere.

II. kapitulua Katastroko titularra.

10. artikulua. Katastroko titularrak.

1. Pertsona fisikoak, pertsona juridikoak, Bizkaiko Lurralde Historikoko Zergei buruzko 2005eko martxoaren 10eko 2/2005 Foru Arauaren 34. artikuluko 3. zenbakian aipatutako erakundeak eta testamentu-ahalordea erabiltzearen zain dauden jaraunspenak izan daitezke katastroko titular, baldin eta Higiezinak Foru Katastroan alta emanda badaude, ondasun higiezin baten edo haren zati baten gainean eskubide hauetako baten titulartasuna izateagatik:

- a) Jabetza-eskubide osoa edo ez hain osoa.
- b) Gozamen-eskubide erreala.
- c) Azalerako eskubide erreala.
- d) Ondasun higiezin baten edo ondasun hori afektatuta dagoen zerbitzu publikoen gaineko administrazio-emakida.

2. Ondasun higiezin baten edo aurreko zenbakian aipatutako eskubideetako edozeinen jabetza pro indiviso badagokio pertsona askori, katastroko titulartasuna bakoitzari dagokion kuotaren arabera esleituko zaio erkide, kide edo partaide bakoitzari eta, hala denean, haiek guztiek osatutako erkidegoari; erkidego hori identifikazio fiskaleko zenbakiaren bidez adieraziko da.



3. Artikulu honetako 1. zenbakian aipatzen diren eskubideak irabazpidezko ondasunen ezkontza-eraentzan edo ondasunen foru-komunikazioan dauden ezkontide biei badagozkie, edo izatezko bikote bateko kideei badagozkie —itundu duten ekonomia- eta ondare-araubidea aurrekoetako edozein dela—, eskubideon katastroko titulartasuna ezkontide edo izatezko bikoteko kide biei egokituko zaie, eta erdi bana esleituko zaie, beste partaidetza-kuota batzuk aplikatu behar direla frogatu ezean.

4. Eskubide baten katastroko titulartasunaren eta eskubide horrek Jabetza Erregistroaren arabera duen titulartasunaren artean desadostasunik badago katastroko titulartasuna hartuko da kontuan, erregelamenduz ezartzen den baldintzetan eta Higiezinaren Foru Katastroaren ondoreetarako.

11. artikulua. Ordezkaritza.

1. Hauek dira katastroko titularrek Higiezinaren Foru Katastroarekin izango dituzten harremanetan bete beharko dituzten erregelak:

a) Higiezin berak katastroko titular bat baino gehiago badu, ordezkaritza bat izendatu beharko dute titularrek. Hala egiten ez badute, higiezinaren gaineko titulartasun-portzentaje handiena duen pertsona edo, denek portzentaje berdina badute, ondasunen katastroko titularren zerrendan lehenengo agertzen dena hartuko da ordezkaritzat.

b) Ondasun higiezinaren titulartasuna ezkontide biei edo izatezko bikote bateko kide biei badagokie, ordezkaritza edozein ezkontideri edo bikoteko kideri eman zaiola ulertuko da, salbu eta beren-beregi besterik adierazten ez badute.

c) Gainerako kasuetan, ordezkaritza Bizkaiko Lurralde Historikoko Zergei buruzko 2005eko martxoaren 10eko 2/2005 Foru Arauan zehazten denaren arabera eraenduko da.

2. Artikulu honetan ezarritakoa gorabehera, ordezkatuek eskubidea izango dute edonoiz jasotzeko haien titulartasuneko higiezina dela-eta egindako jarduketari buruzko informazioa, bai eta haien inguruan hartzen diren ebazpenei buruzkoa ere, baldin eta hala eskatzen badute.

12. artikulua. Eskubideak eta betebeharrak.



1. Higiezinaren Foru Katastroarekin dituzten harremanetan, katastroko titularrek Bizkaiko Lurralde Historikoko Zergei buruzko 2005eko martxoaren 10eko 2/2005 Foru Arauak zein hura garatzeko xedapenek aitortzen dizkieten eskubideak izango dituzte, foru arau honetan ezarritako berezitasunekin.

2. Katastroko titularrek Higiezinaren Foru Katastroari laguntzeko betebeharra dute, eta, horretarako, haren kudeaketarako beharrezkoak diren datu, txosten edo aurrekari guztiak eman behar dizkiote.

II. titulua. Katastroaren kudeaketa: Higiezinaren Foru Katastroa eratzea eta mantentzea.

I. kapitulua. Xedapen orokorrak.

13. artikulua. Higiezinaren Foru Katastroaren nahitaezkotasuna.

1. Nahitaezkoa da ondasun higiezinak Higiezinaren Foru Katastroan sartzea eta handik ateratzea, bai eta higiezinon ezaugarrien aldaketak eranstea ere; eransketa horrek, gainera, katastro-balioa esleitu edo berrikustea eragin lezake. Betebehar hori zabaldu egin liteke, gainera, aldaketak eragindako higiezinaren katastroko deskripzioa errealitatearekin bat etortzeko datuetan egin beharreko aldaketa guztiak egin behar izateraino.

2. Higiezinak Higiezinaren Foru Katastroan sartzeko, handik ateratzeko, edo katastroan jasotako datuak aldatzeko, katastroaren kudeaketarako prozedura hauetako bat jarraitu beharko da:

- a) Ondasunen higiezinaren aldaketei buruzko deklarazioa.
- b) Ondasunen higiezinaren aldaketei buruzko komunikazioa.
- c) Erregularizazioa.
- d) Desadostasunak ongitzea eta zuzentzea.
- e) Katastroa eguneratzea.



f) Katastro-balioak finkatzea, berrikustea, aldatzea eta eguneratzea.

14. artikulua. Araubide juridikoa.

Aurreko artikuluan aipatzen diren prozedurek tributu izaera dute eta foru arau honetan ezarritakoaren arabera eraenduko dira; ordezeko gisa aplikatuko dira, hain zuzen, Bizkaiko Lurralde Historikoko Zergei buruzko 2005eko martxoaren 10eko 2/2005 Foru Arauaren xedapenak zein hura garatzeko xedapenak, bai eta Administrazio Zuzenbideko xedapen orokorrak ere.

II. kapitulua Katastroko aldaketak deklaratu, komunikatu eta erregularizatzeko prozedurak.

15. artikulua. Aldaketa fisiko, juridiko eta ekonomikoak.

Foru arau honetan ezarritakoaren ondorioetarako, honako hauek hartuko dira ondasun higiezinaren aldaketatzat:

a) Fisikoak:

- Eraikin berriak egitea eta daudenak handitu, eraberritu edo birgaitzea, eraitsi edo lurreratzea, hala zati batean nola osorik.

Ez dira aldaketatzat joko eraikinen kontserbazio edo mantentze hutserako diren obrak edo konponketak, nahiz eta aldian-aldikoak izan; halaber ez dira aldaketatzat joko soilik eraikinen ornamentazio- edo dekorazio-ezaugarriei eragiten dietenak.

- Hiri-ondasunen erabilera edo xedearen aldaketak.

- Landa-ondasun higiezinetan, laborantza mota edo aprobetxamendua aldatzea.

Ez dira aldaketatzat joko ziklikoak diren aldaketak edo labore-txandaketari dagozkionak.

b) Juridikoak:



- Jabetza eskuratzea, eskualdatzea eta finkatzea eta foru arau honen 10. artikuluan jasotako eskubideetako edozein eratzea, aldatzea edo iraungitzea.

Ondorio horietarako, aldaketa juridikotzat joko da aurreko lerroaldean aipatutako eskubide edo betebeharren titularra hiltzea.

- Ondasun higiezinaren banantzea, zatiketa, eransketa edo elkarketa.

c) Ekonomikoak:

- Ondasun higiezinaren erabilera edo xedea aldatzea, baldin eta aldaketa fisikorik ez badakar.

16. artikulua. Katastroko aldaketen deklarazioa.

1. Foru arau honetan definitutako katastroko titularrek deklaratu egin behar dituzte haien titulartasuneko ondasun higiezinetan gertatzen diren aldaketa fisiko, juridiko edo ekonomiko guztiak, erregelamenduz horretarako ezartzen diren epeetan.

2. Aurreko zenbakian ezarritakoa gorabehera, titulartasuna aldatzeari edo foru arau honen 10. artikuluan jasotako eskubideetako edozein eratu edo iraungitzeari lotuta dauden aldaketa juridikoak pertsona edo erakunde eskualdatzaileak ere deklaratu behar ditu.

3. Pertsona bat baino gehiago badago deklarazioa egitera behartuta, haietako batek betebeharra betez gero betetzat joko da betebeharra.

4. Artikulu honetan ezartzen den deklaratzeko betebeharretik salbuetsita daude hauek:

- a) Ondare Eskualdaketen eta Egintza Juridiko Dokumentatuen gaineko Zergari edo Oinordetza eta Dohaintzen gaineko Zergari dagokionez aitorpenaren edo autolikidazioaren xede izan diren ondasun higiezinaren eskualdaketak.

- b) Foru arau honen 17. artikuluan katastroko aldaketak komunikatzeko aurreikusten diren kasuak, baldin eta ondasun higiezinaren aldaketa grafikorik ez badakarte.

5. Erregelamendu bidez, katastroko aldaketak komunikatzeko beste kasu batzuk zehaztu ahal izango dira, zeinetan katastroko titularrak salbuetsita geratuko diren artikulua honetan araututako deklaratzeko betebeharretik.



17. artikulua. Katastroko aldaketen komunikazioa.

Hauek hartuko dira komunikaziotzat:

1. Toki-erakundeek eta gainerako administrazio publiko jarduleek (udalak, foru sailak edo beste edozein administrazio publiko) bidaltzen dituztenak, foru arau honen 35. artikuluko 1. zenbakian ezarritakoa betez.
2. Notarioek eta jabetza-erregistratzaileek bidaltzen dituztenak, foru arau honen 35. artikuluko 2. zenbakian ezarritakoa betez.

18. artikulua. Erregularizatzeko prozedura.

1. Deklaratzeko betebeharra duten pertsonak ez badituzte deklaratu foru arau honen 15. artikuluan definitzen diren katastroko aldaketak eta haiek komunikatzeko salbuespenik ez badute —16. artikuluko 4. zenbakian ezarritakoaren arabera—, Bizkaiko Foru Aldundiak Higiezinaren Foru Katastroan sartu ahal izango ditu bai ondasun higiezin horiek bai haien ezaugarrien aldaketak, katastroa erregularizatzeko prozeduraren bidez.

2. Prozedura hori ofizioz hasiko da eta erregularizazioak ukitutako titularrei jakinaraziko zaie, hilabeteko epearen barruan beren borondatez aurkeztu ahal dezaten aurretik egin ez duten deklarazioa zein hari dagokion dokumentazioa.

3. Ondasun higiezinaren katastroko egoera deklaratzailaren borondatez erregularizatzeko epea amaitu bada baina ez bada deklarazioa aurkeztu edo ez bada osorik aurkeztu, aldaketak katastroan jasoko dira, kontuan hartuta bai katastroak erabilgarri duen informazio grafiko eta osagarri guztia, bai eta, halakorik egin bada, aldaketak eragindako higiezinetan egindako ikuskapenak ere.

19. artikulua. Deklaratzeko, komunikatzeko eta erregularizatzeko prozeduren arau komunak.

1. Katastroko aldaketak deklaratzeko, komunikatzeko eta erregularizatzeko prozedurak ebazteko sei hilabeteko epea dago gehienez ere.

2. Aurreko zenbakian aipatutako prozeduren ondorioz emandako egintzak eraginkorrak izango dira ondasuna katastroan sartzea, handik ateratzea edo katastroa



aldatzea eragin zuten egitate, egintza edo negozioak gertatu eta biharamunetik, haiek jakinarazten diren eguna edozein dela ere.

3. Kapitulu honetan ezarritakoa gorabehera, Bizkaiko Foru Aldundiak ahala izango du zehatzeko prozedura hasteko baldin eta ez bada bete foru arau honen 16. artikuluan aipatzen diren katastroko aldaketak deklaratzeko betebeharra.

III. kapitulua. Desadostasunak ongitzeko eta zuzentzeko prozedura.

20. artikulua. Desadostasunak ongitzeko prozedura.

1. Bizkaiko Foru Aldundiak, ofizioz edo katastroko titularrek eskatuta, ongitu egin ditzake katastroko datuen eta higiezinaren errealitatearen arteko desadostasunak, baldin eta desadostasunok ez badira sortu bete ez direlako foru arau honen 16. artikuluetan ezartzen diren deklaratzeko edo komunikatzeko betebeharrak.

2. Edozelan ere, alegazioen izapidea irekiko dela jakinaraziko zaie kasuan kasuko ebazpenak eragin liezaiekeen ondasun higiezinaren titularrei, eta hogeita hamar egun naturaleko epea emango zaie jabetza-titulua eta ondasun higiezin horiei dagokien gainerako dokumentazioa aurkezteko zein beren eskubidea defendatzeko komenigarritzat jotzen dituzten alegazioak egiteko.

3. Epea amaituta eta aurkeztutako tituluak eta egindako alegazioak ikusita, ebazpena hartuko du kudeaketa-organoak eta katastroko datuak aldatuko ditu, hala badagokio.

4. Desadostasunak ongitzeko prozedura ebazteko gehienez ere sei hilabeteko epea dago egun hauetako batetik zenbatuta: edo prozedura hasteko erabakia hartzen den egunetik zenbatuta edo desadostasunak ongitzeko eskabidea prozedura hori ebatzi behar duen organo eskudunaren erregistroan sartzen den egunetik zenbatuta.

5. Desadostasunak ongitzeko prozedura baten ondorioz ematen den ebazpena hura erabakitzen den egunaren biharamunetik aurrera izango da eraginkorra.

6. Desadostasunak ongitzeko eskabideak ez dira onartuko kasu hauetan:

- a) Partzelen edo katastroko elementuen azaleraren aldaketen inguruko desadostasunetan, ez bada grafikoki dokumentatzen zer zedarritzatze zehatz izango duten lortu nahi den titulartasunaren mugek.



b) Partzela edo katastroko elementu baten edo gehiagoren okerreko zehaztapenaren ondoriozko aldaketen inguruko desadostasunetan, baldin eta interesdunak aurkeztutako neurketa teknikotik ateratzen den azaleraren aldea txikiagoa bada erregelamenduz zehazten den tolerantzia teknikoa baino, zehaztapen grafiko ez esanguratsua izateagatik.

7. Kasu hauetan, berriz, artxibatu egingo da desadostasunak ongitzeko ofizioz hasitako espedienteak edo ezetsi egingo da katastroko datuak zuzentzeko eskaera:

a) Partzela edo katastroko elementu baten edo batzuen mugak eta azalerak aldatzearen inguruko desadostasunak direnean: espedienteari erantsitako dokumentazioak agerian uzten bada izaera zibileko auziren bat dagoela edo ezinezkoa dela katastroko irudikapen grafikoan akats bat egoteari buruzko uste oso eta zalantzarik gabekoa izatea.

b) Partzela edo katastroko elementu baten edo batzuen katastroko titulartasunaren inguruko desadostasunak direnean: espedienteari erantsitako dokumentaziotik agerian geratzen bada izaera zibileko auziren bat dagoela partikularren artean, inskribatutako titularrak katastroko titulartasuna aldatzearen kontra egoteagatik.

8. Ondasunen titularrek eskatuta hasi diren desadostasunak ongitzeko prozeduretan, prozedura haiei egozteko moduko arrazoiengatik geldiarazten bada, Bizkaiko Foru Aldundiak ohartaraziko die handik hiru hilabetera iraungi egingo dela prozedura. Epe hori amaitu bada baina errekerimendua egin zaion titularrak ez baditu egin izapidea berrirori hasi ahal izateko egin beharreko jarduerak, jarduketak artxibatuko dira eta horren berri emango zaie interesdunei. Iraungitzea deklaritzen duen ebazpenaren aurka errekurtsioak jar daitezke, kasu bakoitzean dagozkionak.

Ofizioz edo ondasunen titularrak eskatuta hasitako prozeduretan, berriz, aurreko artikuluko 4. zenbakian ezarritako epea berariazko ebazpenik eman gabe amaitzeak prozeduran eskatutakoa administrazio-isiltasunez ezestea ekarriko du.

21. artikulua. Zuzentzeko prozedura.

1. Bizkaiko Foru Aldundiak ofizioz zuzendu dezake katastroko datu-basean jasotako informazioa baldin eta beharrezkoa bada azalerak zuzentzea —erregelamenduz ezarritako tolerantzia-marjinaren barruan betiere—. Zuzenketak egin ditzake, halaber, posta-



identifikatzaileetan edo kartografian gertatutako aldaketak islatzeko zein Higiezin Foru Katastroa eta higiezin errealitatea bat etor daitezen egin beharreko jarduketa orokorrak egiteko.

2. Zuzentzeko prozedura baten ondorioz ematen den ebazpena hura erabakitzen den egunaren biharamunetik aurrera izango da eraginkorra.

3. Aurrekoa gorabehera, zuzentzeko prozedura baten barruan egindako aldaketek eragindako katastroko titularrei ez bazaie banan-banan jakinarazten prozeduraren ebazpena, interesdunok edozein unetan eskatu ahal izango dute, zuzenean, hura zuzentzea, betiere egiaztatzen badute egindako aldaketak ez duela islatzen higiezinaren errealitate fisiko edo juridikoa.

IV. kapitulua. Katastroko datuak eguneratzeko prozedura.

22. artikulua. Katastroko datuak eguneratzeko prozedura.

1. Bizkaiko Foru Aldundiak irizten badio beharrezkoa dela Bizkaiko Lurralde Historikoko udalerrri bateko edo batzuetako katastroko datuen berrikusketa orokorra egitea katastroa eguneratzeko prozedura hasi ahal izango du, organo eskudunak eman eta Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratuko den erabaki baten bidez.

2. Iragarkia argitaratzearekin batera epe bat zabalduko da, non prozedurak ukitutako katastroko titularrek aukera izango duten haien jabetza-tituluak zein egoki iritzitako dokumentazio osagarri guztia aurkezteko. Edozelan ere, 15. artikuluan definiturik dauden katastroko aldaketei buruzko dokumentazio juridiko eta grafikoa aurkeztu beharko dute, baldin eta aldaketa horiek ez badituzte aurretik deklaratu foru arau honen 16. artikuluan ezarritako eran.

3. Dokumentuok aurkezteko epea amaituta, katastroa eguneratuko da, hots, berrikusten den eremuaren zedarritzatze grafiko berria egingo da partzela-planoan, dagozkion titulartasunak esleituko dira eta ukitutako higiezinaren karakterizazioa eta haren ondoriozko balioztatzea egingo dira.

4. Higiezinaren zedarritzatze grafikoa eta karakterizazioa egiteko lanak amaitu ondoren, iragarkia argitaratuko da Bizkaiko Aldizkari Ofizialean, jendaurreko erakusketa egitearren.



Aurrekoaz gainera, baina informazioa emateko baino ez, komunikazio bat bidali ahal izango zaie interesdunei, jendaurreko erakusketa non eta zein epetan egingo den adierazteko, eta higiezinak nola geratzen diren deskribatzen duen dokumentu bat ere bidali ahal izango zaie.

Jendaurreko erakusketak dirauen artean alegazioak aurkez daitezke bai zedarritzatzeari buruz bai titulartasunari eta egindako karakterizazioari buruz.

5. Jendaurreko erakusketa amaituta eta aurkeztutako alegazioak ikusita, katastroaren eguneratzea behin betiko onartzeko ebazpena emango da eta Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratuko da.

6. Katastroko titular guztiei jakinarazi behar zaie higiezin edo katastroko elementu bakoitzak zer behin betiko konfigurazio izango duen eguneratzearen ondorioz; jakinarazpena foru arau honen 27. artikuluko 7. zenbakian zehazten den eran egin behar da.

7. Katastroa eguneratzeko prozedura ebazteko gehieneko epea urtebete da, prozedura hasteko erabakia argitaratzen den egunetik hasita. Nolanahi ere, epe hori beste sei hilabeterako luzatu ahal izango da, ezohiko inguruabarrak badaude edo zailtasun berezia duten jarduketak badira.

V. kapitulua. Balioztatzea.

1. atala. Katastro-balioa eta hura zehaztea.

23. artikulua. Katastro-balioa.

1. Katastro-balioa higiezinaren balio fiskal bat da, eta Bizkaiko Foru Aldundiak modu objektiboan zehaztuko du, Higiezinaren Foru Katastroan jasota dauden datuak oinarri hartuta.

2. Katastro-balioa ezin da inoiz merkatu-balio probablea baino handiagoa izan, balio hori hau izanik: kargarik gabeko higiezin bat alderdi independenteen artean eta merkatuko baldintza arruntetan eskualdatuz gero ordain litekeen preziorik probableena.

3. Salmenta-prezioa Administrazioak mugatuta duten ondasun higiezinaren kasuan, katastro-balioa ezin da inoiz prezio hori baino handiagoa izan.



24. artikulua. Ondasun higiezinaren katastro-balioa zehazteko irizpideak.

1. Ondasun higiezinaren katastro-balioa lurzoruen balioak eta eraikinenak osatuko dute.

2. Katastro-balioa zehazteko irizpide hauek hartuko dira kontuan:

a) Higiezinaren kokalekua, lurzoruari eragiten dioten hirigintzako inguruabarrak eta ekoizpenerako duen gaitasuna.

b) Eraikinen exekuzio materialeko kostua, kontrataren mozkinak, ordainsariak eta eraikuntza kargatzen duten tributuak, eraikinen erabilera, kalitatea eta antzintasuna.

c) Ekoizpen-gastuak eta sustapeneko enpresa-jardueraren mozkinak, edo, halako sustapenik ez badago, kasu horri dagozkion bestelako faktoreak.

d) Merkatuko inguruabarrak eta balioak.

e) Erregelamenduz zehazten den beste edozein faktore esanguratsu.

3. Ondasun higiezinaren balioa zehazteko erregelamenduz zehazten diren arau teknikoek jaso egin behar dituzte, arestian azaldutako irizpideekin bat eta ondasun higieziari eragiten dieten ezaugarri intrintseko eta estrintsekoen arabera, haien katastro-balioa zehaztea ahalbidetzen duten kontzeptuak, erregelak eta gainerako faktoreak.

25. artikulua. Katastro-balioa zehaztea.

1. Katastro-balioa zehazteko dagokion balio-txostena aplikatuko da, hurrengo artikuluetan zehazten den bezala.

2. Bizkaiko Higiezinaren Katastroan titulu honetako II., III. eta IV. kapituluetan jasotako prozedurak direla bide egindako erante edo aldaketa guztiek, beharrezkoa denean, erante edo aldaketak ukitutako higiezinaren katastro-balioaren zehaztapen indibidualizatua jasoko dute, haren ezaugarri berriekin. Katastro-balioa zehazteko, Katastroko erantea edo aldaketa eraginkorra den lehenengo ekitaldian kasuan kasuko udalerrian indarrean dagoen balio-txostena aplikatuko da.



3. Artikulu honetako 2. zenbakian ezarritakoa gorabehera, ondasun higiezin horiei ondoren onartzen diren balio-txostenak aplikatuko zaizkie, bai eta foru arau bidez onartzen diren katastro-balioak eguneratzeko koefizienteak ere.

26. artikulua. Katastro-balioak finkatzea, berrikustea, aldatzea eta eguneratzea.

1. Katastro-balioak foru arau honetan ezarritakoaren arabera finkatu, berrikusi, aldatu eta eguneratuko dira.

2. Katastro-balioa finkatzea da eragiketa bat non Administrazioak lehenengoz zehazten duen ondasun higiezin gehiengoari dagokion balio hori. Horretarako, foru arau honen 27. artikuluan ezarritako prozedura bete beharko da.

3. Katastro-balioa berrikustea da eragiketa bat non Administrazioak aldian-aldian zehazten duen balio hori aurretik esleituta zuten ondasun higiezin gehiengoari dagokion katastro-balioa. Horretarako, foru arau honen 27. artikuluan ezarritako prozedura bete beharko da.

4. Katastro-balioa aldatzea da eragiketa bat non Administrazioak balio hori zehazten duen higiezin batentzat edo higiezin multzo batentzat, baldin eta hirigintza-plangintzak edo beste inguruabar batzuek agerian uzten badute funtsezko diferentzia dagoela balio haren eta merkatuko balio probablearen artean. Katastro-balioaren aldaketak kasu bakoitzari dagokion prozedura bete beharko du, foru arau honen 28. artikuluan araututakoaren arabera.

5. Katastro-balioa eguneratzea da eragiketa bat non Administrazioak, oro har, katastro-balio berriak zehazten dituen, aurretik indarrean zeuden balioei koefizienteak aplikatuz, katastro-balioak ez daitezen desfasatuta geratu merkatuari dagozkion arrazoiengatik. Katastro-balioak koefizienteak aplikatuz eguneratzea foru arau bidez aginduko da.

2. atala. Katastro-balioa finkatzeko, berrikusteko eta aldatzeko prozedura. Balio-txostenak.

27. artikulua. Katastro-balioak finkatzeko eta berrikusteko prozedura.



1. Balio-txostenetan hauek agerrarazi behar dira: irizpideak, balio-eremuak, balioztatzeko arau teknikoak, dagokion lurzorua zedarritzapena eta ondasun higiezinaren katastro-balioak finkatzeko behar diren gainerako elementu guztiak.

2. Katastro-balioak finkatzeko eta berrikusteko prozedurak bi fase bereizi ditu: batetik, balio-txostenak prestatzea eta onartzea, lurzoria zedarritzatu ondoren, eta, bestetik, katastro-balioen esleipen indibidualizatua egitea.

3. Balio-txostenak onartu aurretik, nahitaez, udal interesdunek haiei buruzko txosten ez-loteslea eman behar dute, eta hamabost egun naturaleko epea dute horretarako.

Epe horretan txostenik ematen ez bada, aldekoa dela ulertuko da eta prozeduraren izapidetzeak aurrera jarraituko du.

4. Balio-txostenak erabaki bidez onetsiko dira eta haiei buruzko ediktuak Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratuko dira, haietatik ateratzen diren katastro-balioek ondorioak sortu behar dituzten urtearen aurre-aurreko urtean; ediktuan adieraziko da nola eta zenbat denbora egongo den ikusgai —hamabost egun natural, gutxienez—.

5. Balio-txostenen aurka aukerako berraztertze-errekurtsoa jar daiteke, edo, bestela, zuzenean erreklamazio ekonomiko-administratiboa; horretarako epeak errekurtso horiei buruzko arautegi erregulatzailean ezartzen dira. Errekurtsoa edo erreklamazioa jartzeak ez du etengo aurkaratutako egintza bete beharrekoa izatea.

6. Balio-txostenak jendeari erakusteko epea amaituta, txosten horien ondoriozko katastro-balio indibidualizatuak katastroko titularrei jakinarazi behar zaizkie, balio horiek efektuak izango dituzten urtearen aurre-aurreko urtea amaitu baino lehen.

7. Jakinarazpena modu hauetan egin dakioke katastroko titularrari edo hark baimendutako pertsonari: edo bitarteko elektronikoak erabiliz, edo titularra edo hark baimendutako pertsona pertsonatuta, edo bitarteko ez-elektronikoak erabiliz egindako jakinarazpen pertsonal eta zuzenaren bidez, erregelamenduz ezartzen diren baldintzetan.

Esleitutako katastro-balioen jakinarazpenean nahikoa arrazoitu behar da haien zenbatekoa, eta, horretarako, adierazi behar da zein balio-txostenetan oinarrituta dauden.

8. Esleitutako katastro-balioa balio hori jakinarazi den urtearen hurrengo urteko urtarilaren 1etik aurrera izango da eraginkorra.



9. Esleitutako katastro-balioen aurka aukerako berraztertze-errekurtsoa jar daiteke, edo, bestela, zuzenean erreklamazio ekonomiko-administratiboa; horretarako epeak errekurtso horiei buruzko arautegi erregulatzailean ezartzen dira. Errekurtsoa edo erreklamazioa jartzeak ez du etengo aurkaratutako egintza bete beharrekoa izatea.

28. artikulua. Katastro-balioak aldatzeko prozedura.

1. Hirigintza-plangintza edo bestelako inguruabarren bat dela bide argi geratzen bada funtsezko diferentzia dagoela udalerriko ondasun higiezin gehienen katastro-balioaren eta haien merkatu-balioaren artean, katastro-balioak aldatuko dira, ofizioz zein kasuan kasuko toki-erakundeak eskatuta.

Aldatu beharra dagoenean, foru arau honen 27. artikuluan ezarritako prozedura berari jarraituko zaio; horretarako, balio-txosten berriak prestatu eta onetsi beharko dira.

2. Balio-diferentziak udalerriko alde edo eremu batean zein batzuetan soilik agertzen badira, ez da egongo balio-txosten berriak onetsi beharrik.

Hala gertatzen denean, lehendik dauden balio-txostenak aldatuko dira, eta udal interesdunek haiei buruzko txosten ez-loteslea egin beharko dute, foru arau honen 27. artikuluko 3. zenbakian ezarri bezala.

3. Bai beste lurzoru batzuk eranstea, bai lurzoru batzuen sailkapena eta kalifikazioa aldatzea, bai eta hirigintza-erabilerak edo -aprobetxamenduak aldatzea ere balio-txostenaren berrikusketa edo aldaketatzat hartuko dira, artikuluko honetako aurreko zenbakietan ezarritako baldintzetan.

4. Aldatutako katastro-balioak banaka jakinarazi behar dira, haien zenbatekoa nahikoa arrazoituta eta foru arau honen 27. artikuluko 6. eta 7. zenbakietan ezarritakoaren arabera.

5. Katastro-balio horiek jakinarazi diren urtearen hurrengo urteko urtarrilaren 1etik aurrera izango dira eraginkorrak.

6. Katastroko titularrak batera aurkaratu ditzake txostenen aldaketak eta katastro-balioa, haien aurkako aukerako berraztertze-errekurtsoa jarritz, edo, bestela, zuzenean erreklamazio ekonomiko-administratiboa aurkeztuz; horretarako epeak errekurtso horiei buruzko arautegi erregulatzailean ezartzen dira. Nolanahi ere, errekurtsoa edo erreklamazioa jartzeak ez du etengo aurkaratutako egintza bete beharrekoa izatea. Ondorio horretarako,



txostenak hilabetez egongo dira interesdunen eskura, erregelamendu bidez ezartzen den eran.

VI. kapitulua. Katastroko errolda.

29. artikulua. Edukia.

1. Katastroko erroldak hauek islatuko ditu: ondasun higiezinaren izaera, Ondasun Higiezinaren gaineko Zergaren subjektu pasibo diren katastroko titularrak eta katastro-balioak.

2. Gainera, foru arau honen 6. artikuluko 4. zenbakian aipatzen den katastroko erreferentzia islatuko du, katastroko elementu bakoitzari dagokiona.

30. artikulua. Errolda eratzea eta aldatzea.

1. Bizkaiko Foru Aldundiak, urtero, udal-mugarte bakoitzerako errolda prestatuko du, eta hamabost egunez udalen eskura jarriko du. Gainera, hartarako sarbidea emango zaie interesdunei Bizkaiko Foru Aldundiaren Interneteko orrian, prozedura elektronikoen bidez kontsultatu ahal ditzaten.

2. Jendaurreko erakusketaren barruan, interesdunek beren titulartasuneko ondasun higiezinak aztertu ahal izango dituzte eta, hala nahi izanez gero, erreklamazioak aurkeztu ahal izango dituzte.

3. Titulu honetan deskribatutako katastroaren kudeaketako prozeduren ondorioz higiezinak Higiezinaren Foru Katastroan sartu, ondasunok handik atera edo katastroan jasotako datuak aldatzen badira, Katastroko errolda aldatu beharko da.

4. Era berean, Higiezinaren Foru Katastroko datuekin zerikusia duen aldaketaren bat egiten bada Erroldan, katastrokoetan ere aldaketa bera egin beharko da, eta aldaketa hori, ezinbestean, erroldakoa egin aurretik egin behar da.

Ondorio horietarako, Ondasun Higiezinaren gaineko Zerga kobratzeko zerrendak, diru-sarrerari dagozkion dokumentuak edo zerga hori ordaindu izanaren frogagiriak eman aurretik egiaztatzen bada ez datozela bat subjektu pasiboa eta katastroko titularra, organo kudeatzaileak kasuan kasuko ekitaldian sortutako Ondasun Higiezinaren gaineko Zerga



likidatzearen subjektu pasiboa dela-eta erabakitzen dituen zuzenketak berehala komunikatu behar zaizkio Bizkaiko Foru Aldundiari, erregelamenduz zehazten den eran.

Bizkaiko Foru Aldundiak eta kasuan kasuko udalak edo toki-erakundeak ez badute eginkizunak eskuordetzeko hitzarmenik, Bizkaiko Foru Aldundiak katastroko titulartasuna berretsi edo aldatuko du, bidali zaion informazioa ikusita, eta horretarako erabakia udalari edo toki-erakundeari komunikatuko dio, likidazio berria egin dezan, hala egin behar izanez gero.

III. titulua. Katastro-kartografia.

31. artikulua. Kontzeptua.

1. Bizkaiko Lurralde Historikoko ondasun higiezinaren irudikapen grafikoak beti jaso behar du haien deskripzio kartografikoa, titulu honetan ezartzen den eran jaso ere.

2. Higiezinaren Foru Katastroaren oinarri geometrikoa Bizkaiko Foru Aldundiak landutako partzelen kartografiak osatuko du. Katastro-kartografia izango da Bizkaiko Lurralde Historikoko ondasun higiezinak geoerreferentziazteko oinarria.

32. artikulua. Katastro-kartografiaren edukia.

1. Katastro-kartografiak, garrantzitsutzat jotzen diren beste ezaugarri batzuez gainera, Higiezinaren Foru Katastroan inskribatzekoak diren ondasun higiezinaren forma, neurriak eta kokapena definituko ditu, kontuan izan gabe zer erabilera edo jardueratara dedikatzen diren. Kartografia hori izango da, osorik, Higiezinaren Foru Katastroaren euskarri grafikoa.

2. Kartografiak hauek jasoko ditu, bereziki:

a) Katastroko poligonoak, hauek zehaztuak: luraren lerro iraunkorrak eta haren ezaugarri nabarmenenak, udal-mugartearen mugak eta lurzoru motak.

b) Ondasun higiezinak zedarritzatzen dituzten partzelak edo lur-zatiak, haietan kokatutako eraikinak eta, halakorik badago, labore edo aprobetxamendu bakoitzaren azpipartzelak edo lur-zatiak.



3. Plano grafikoek, udalerrri bakoitzerako, kasuan kasuko lurzorua azalduko dute, eta elementu hauek jasoko dituzte:

- Egun dauden bideen lerrokadurak.
- Poligonoen zenbakiak.
- Kanpoko lerrokadurak eta partzelen arteko mugenak.
- Eraikinen ingeradak.
- Eraikin bakoitzaren posta-helbidearen zenbakia.
- Partzelaren zenbakia.
- Eraikinaren zenbakia.

33. artikulua. Katastro-kartografiarako sarbidea.

Katastro-kartografia herritarren eta enpresen eskura egongo da, bai eta lurraldeari edo ondasun higiezin zehatzei buruzko informazioa behar duten administrazio eta erakunde publikoen eskura ere, Bizkaiko Foru Aldundiaren egoitza elektronikoan horretarako ezartzen diren zerbitzuen bidez.

IV. titulua. Laguntza eta informazio-trukea.

34. artikulua. Laguntzeko betebeharra.

1. Pertsona fisiko edo juridiko —publiko edo pribatu— guztiek zein Bizkaiko Lurralde Historikoko Zergei buruzko 2005eko martxoaren 10eko 2/2005 Foru Arauaren 34. artikuluko 2. zenbakian aipatutako erakundeek laguntzeko betebeharra dute —foru arau horretako 92. artikuluan ezartzen den legez—, Higiezinaren Foru Katastroa eratu eta mantentzeko garrantzi handia duten datuak, txostenak eta aurrekariak direla eta.

2. Administrazioek eta gainerako erakunde publikoek, fede-emaile publikoek eta, oro har, eginkizun publikoak betetzen dituztenak behartuta daude Higiezinaren Foru Katastroa eratu eta mantentzeko garrantzi handia duten datuak edo txostenak ematera Bizkaiko Foru



Aldundiari —Bizkaiko Lurralde Historikoko Zergei buruzko 2005eko martxoaren 10eko 2/2005 Foru Arauaren 93. artikuluan ezarritako baldintzetan—, Bizkaiko Foru Aldundiak hala eskatuz gero, dela xedapen orokorren bidez dela errekerimendu zehatzen bidez. Helburu horretarako, aurreko horiek guztiek informazio horretarako doako sarbidea erraztu beharko dute, arestian adierazitako baldintzetan, baliabide elektronikoen bidez.

35. artikulua. Informazio-trukea.

1. Toki-erakundeek eta gainerako Administrazio jarduleek Higiezinaren Foru Katastroa dela-eta hirigintza-plangintza, -kudeaketa eta -diziplinari, partzelen kontzentrazioei, erabilera/xedea aldatzeko lizentziei, mugaketa administratiboei eta nahitaezko desjabetzeari buruzko informazio garrantzitsu guztia bidali behar diote Bizkaiko Foru Aldundiari, erregelamenduz zehaztutako eran.

2. Notarioek eta jabetza-erregistratzaileek telematikoki bidaliko diote Bizkaiko Foru Aldundiari haiek eskuetsi dituzten edo erregistroko inskripzio bat eragin duten dokumentuei buruzko informazioa, baldin eta dokumentuotan Higiezinaren Foru Katastroan inskribatzekoak diren egitate, egintza edo negozioak jasotzen badira. Informazioa notario eta erregistratzaile horien eta katastroaren arloan eskumena duen zuzendaritza nagusiaren artean une bakoitzean indarrean dauden akordioen arabera bidali behar dute, erregelamendu bidez ezarritako baldintzetan.

Informazio horretan bereizita adieraziko da katastroko erreferentzia emateko betebeharra —foru arau honen 38. artikuluan ezarritakoa— bete ez duten pertsonen nortasuna.

3. Bizkaiko Foru Aldundiari datu pertsonalak aurreko zenbakietan ezarritakoaren arabera lagatzeko ez da behar datuok ukitutako pertsonaren adostasunik.

V. titulua. Katastroko erreferentzia dokumentu batean jasota uztea.

36. artikulua. Katastroko erreferentzia dokumentu batean eta erregistroan jasota uztea.

Katastroko erreferentzia —foru arau honen 6. artikuluko 4. zenbakian aipatzen da— honako hauetan agertu beharko da: batetik, ondasun higiezinaren jabariari eta gainerako eskubide errealei, haien gaineko errentamendu-kontratuei edo haien erabilera edozein tituluren bidez lagatzeari dagokionez garrantzi handia duten egitate, egintza edo negozioak



jasotzen dituzten tresna publikoetan, manamendu eta ebazpen judizialean, administrazio-espeditate eta -ebazpenetan zein bestelako agirietan; bestetik, energia hornitzeko kontratuetan zein proiektu teknikoetan, eta, azkenik, ondasun higiezinak buruz erregulamenduz zehaztutako beste agiri guztietan. Halaber jasota utziko da Jabetza Erregistroan, legez ezarritako kasuetan.

37. artikulua. Salbuespenak.

Ez da katastroko erreferentzia agerrarazi behar hauetan:

- a) Berme-eskubide errealean ezereztea jasotzen duten dokumentuak.
- b) Zuzenbide publikoko zorrak kobratzea bermatzeko neurriak hartu edo ezeztatzeko administrazio egintzak.
- c) Zerga-bilketako arautegian araututako ordainketa-gerorapen edo -zatiak xede dituzten prozedurak nahiz tributuak egiaztatu, ikertu eta likidatzeko prozedurak, baldin eta erreferentzia hori aurretik ere ezaguna bazaio Tributu Administrazioari.
- d) Ebazpen judizial bat edo premiamendu-prozedura batean emandako administrazio-ebazpen bat bete eta betearazteko Jabetza Erregistroan egin beharreko idatzoharrak.

38. artikulua. Behartuta dauden subjektuak.

1. Honako kasu hauetan ondasun higiezinaren katastroko erreferentzia aurkeztu beharra dago:

- a) Ondasun higiezinak eragiten dieten prozedurak instruitu edo ebazteko eskuduna den agintaritzak judizial edo administratiboaren aurrean aurkeztu behar denean, ondasun higiezin horien gaineko eskubide errealean titularrek zein haietan garrantzi handia duten eskubideen titularrek aurkeztu behar dute.
- b) Notarioen aurrean aurkeztu behar denean, kasuan kasuko higiezinaren gainean eratutako egitate, egintza edo negozioa jasota uzteko notario-agiria eskatzen edo egilesten dutenek aurkeztu behar dute.



c) Jabetza Erregistroaren aurrean aurkeztu behar denean, erregistratzaileari ondasun higieziari buruzko idazpen bat egin dezala eskatzen diotenek aurkeztu behar dute.

d) Foru arau honen 36. artikuluan aipatzen den hornidura ematen duten konpainien aurrean aurkeztu behar denean, hornidurok kontratatzen dituztenek aurkeztu behar dute, eta ondasun higiezinaren errentamendu-kontratu pribatuetan edo higiezinaren erabilera edozein tituluren bidez lagatzeko kontratuetan, berriz, errentatzaile edo lagatzaileek aurkeztu behar dute.

e) Aurreko letretan aurreikusitako kasuetatik kanpo, interesdunek berez adierazi behar dute katastroko erreferentzia haiek eman edo egiten dituzten agirietan.

2. Finkak aldatzen diren kasuetan, erregelamenduz ezarritako baldintzetan, nahikoa izan daiteke jatorrizko finken katastroko erreferentzia aurkeztea, egindako aldaketak islatzen dituen behin betiko planoarekin edo proiektuarekin batera, baldin eta beharrezkoa balitz kasuan kasuko eragiketa horretan.

3. Katastroko erreferentzia pertsona batek baino gehiago aurkeztu behar duten kasuetan, haietako batek aurkeztuz gero betetzat joko da gainerako pertsonen betebeharra.

39. artikulua. Katastroko erreferentzia egiaztatzeko agiriak.

1. Ondasun higiezinaren katastroko erreferentzia administrazio-espeditante eta -ebazpenetan, tresna publikoetan eta Jabetza Erregistroan utzi behar da jasota, betebeharpeko pertsonak aurkeztu edo emandako agiriaren arabera, zeina honako hauetako bat izan behar den, baldin eta bertan zalantzarik gabe jasotzen bada erreferentzia hori:

a) Katastroko ziurtagiria.

b) Eskritura publikoa edo erregistroko informazioa.

2. Agintaritza judizial edo administratiboak, notarioek edo jabetza-erregistratzaileek, haien eta Bizkaiko Foru Aldundiaren artean sinatutako lankidetzak-hitzarmenak direla-eta, zuzenean lor baditzakete artikuluko 1. zenbakiko a) letran aipatzen diren katastroko



ziurtagiriak, agiri publikoa egilesten duten pertsonak edo erregistro-inskripzioa eskatzen dutenek ez dute izango aurreko artikuluan aipatzen den betebeharra.

40. artikulua. Aurkezteko epea.

1. Katastroko erreferentzia agintaritza judizial edo administratiboari aurkezteko 10 egun daude, hartarako errekerimendua egiten den egunetik zenbatuta. Notarioen aurrean aurkeztu behar bada, agiria eskuetsi aurretik aurkeztu behar da, eta Jabetza Erregistroaren kasuan, berriz, idatzagiria egiteko epearen barruan. Gainerako kasuetan, agiria ematen den unean edo kontratua sinatzen den unean aurkeztu beharko da.

2. Ondasun higiezinak ez badute katastroko erreferentziarik hura aurkeztu behar den unean, alegia, aurreko 1. zenbakian aipatzen den unean, erreferentzia hori aurkeztu behar dutenek —foru arau honen 38. artikuluan aipatzen direnek— erreferentzia hori jakinarazten zaienetik hilabeteko epean komunikatu behar diote kasuan kasuko agintaritza judizial edo administratiboari edo energia-hornitzeko zerbitzua ematen duen enpresari.

41. artikulua. Ez-betetzearen inguruko ohartarazpena.

1. Administrazio-prozedura instruitzeko organo eskudunak, notarioek edo jabetza-erregistratzaileek berariaz eta idatziz ohartarazi behar dituzte interesdunak titulu honetan ezarritako betebeharra betetzen ez duten kasuetan.

2. Gainera, 16. artikuluko 4. zenbakian ezarritako betekizunak betetzen ez diren kasuetan, notarioek edo jabetza-erregistratzaileek berariaz ohartarazi behar dituzte interesdunak bere horretan jarraitzen duela artikuluko horretan bertan ezartzen den deklaratzeko betebeharrak.

42. artikulua. Katastroko erreferentzia eta finkaren identitatea bat etortzea.

Titulu honetan ezarritakoaren ondorioetarako, kasu hauetan, katastroko erreferentzia eta finkaren identitatea bat datozela ulertuko da:

a) Kokapenari, izenari eta azalerari buruzko datuak —azken datu hori jasota badago— bat badatoz tituluaren agertzen direnekin eta, hala denean, Jabetza Erregistrokoekin.



b) Azalera dela-eta dauden diferentziak ehuneko 10 baino handiagoak ez badira eta betiere beste datu deskribatzaile batzuetatik ez bada finkaren identitateari buruzko zalantza funtsaturik sortzen. Kaleen izenak edo zenbakiak aldatzen badira, aldaketa horiek egiaztatu egin behar dira, salbu eta organo eskudunak, notarioak edo jabetza-erregistratzaileak aurretik haien berri badu.

43. artikulua. Katastroko erreferentzia administrazio-agirietan jasota uztea.

1. Foru arau honen aplikazio-eremuan sartutako ondasun higieizinei eragiten dien administrazio-prozedura bat instruitzeko organo eskudunak errekerimendua egingo die eskubide errealeen edo eragin erreala duten eskubideen titularrei foru arau honen 39. artikuluan aipatzen den katastroko erreferentzia egiaztatzeko dokumentazioa aurkez dezaten, salbu eta organo eskudun horrek kasuan kasuko erreferentzia prozedura telematikoen bidez lortu ahal duenean. Prozedura amaitzeko ebazpenean jasota utziko da katastroko erreferentzia, bai eta aurkeztutako frogagiria ere, halakorik aurkeztu bada, eta jasota utziko da, halaber, ea katastroko erreferentzia eta finkaren identitatea bat datozen, aurreko artikuluan ezarritako baldintzetan.

2. Administrazio-prozeduraren ondorioz aldaketa grafikoak egiten badira ondasun higieizinetan edo katastroko elementuetan, administrazio-organoak, foru arau honen 38. artikuluko 2. zenbakian ezarritakoarekin bat, behin betiko planoen edo proiektuen kopia bidaliko dio Bizkaiko Foru Aldundiari, azken horrek aldaketak eragindako ondasun higieizinen katastroko erreferentzia berriak eman eta komunikatu ditzan, erregelamenduz zehazten den eran.

44. artikulua. Katastroko erreferentzia notario-agirietan jasota uztea.

Notarioek, erregelamenduz ezarritako baldintzetan eta foru arau honen 40. artikuluan ezartzen denarekin bat, katastroko erreferentziari buruzko agiriak aurkez ditzatela eskatu behar diete foru arau honen 39. artikuluan aipatzen diren tresna publikoak egiletsi edo errekeritzen dituzten pertsonen, salbu eta erreferentzia hori prozedura telematikoen bidez lortu ahal dutenean.

Eskuesten duten agirian katastroko erreferentzia hori transkribituko dute, eta aurkeztutako agiria matrizeari erantsiko diote, kopiekin batera helarazi dadin.

45. artikulua. Katastroko erreferentzia erregistroan jasota uztea.



1. Katastroko erreferentzia Jabetza Erregistroaren idazpenetan jasota uztearen xedea, besteak beste, informazioa Jabetza Erregistroaren eta Higiezin Foru Katastroaren artean trukatu ahal izatea da.

2. Erregistratzaileak, aurkeztutako dokumentazioa kalifikatu ondoren, idazpenean jasoko du egilesleek agiri inskribagarrian esleitutako katastroko erreferentzia, finka deskribatzeko beste datuekin batera, betiere katastroko erreferentzia eta finkaren identitatea bat badatoz, foru arau honen 42. artikuluan ezarritako baldintzetan.

3. Aurreko zenbakian ezarritakoa gorabehera, finken katastroko identifikazioa eragiketa espezifiko moduan erregistratu daiteke, legez ezarritakoaren arabera.

4. Inskribatutako katastroko erreferentziari aldaketaren bat egiten bazaio, baina aldaketa hori ez bada finkaren ezaugarri fisikoak aldatzearen ondoriozkoa, hura jasota uzteko nahikoa izango da Bizkaiko Foru Aldundiak horretarako emandako ziurtagiria.

5. Hirigintza-izaerako egintzak inskribatuz gero, Erregistroak behin betiko planoaren edo proiektuaren kopia bidaliko dio Bizkaiko Foru Aldundiari, hitzarmenean ezarritako baldintzetan. Bizkaiko Foru Aldundiak, Higiezin Foru Katastroan egin beharreko inskripzioak edo aldaketak egin ondoren, erregistratzaileari itzuliko dizkio kasuan kasuko egintzaren xede diren finken katastroko erreferentziak.

6. Katastroko erreferentzian desadostasunak egoteak ez dio eragingo inskripzioaren baliozkotasunari.

46. artikulua. Katastroko erreferentziaren sinestamendua.

1. Administrazio-prozedura bat instruitzeko organo eskudunak, notarioek edo Jabetza Erregistroak irizten badiote balitekeela interesdunak aurkeztutako agirietatik ateratzen den katastroko erreferentzia ez izatea agirian jasotzen den egitate, egintza edo negozio juridikoarena, nahiz eta finkaren identitatearekin bat etorri foru arau honen 42. artikuluan ezarritako baldintzetan, bada, orduan, Bizkaiko Foru Aldundiari komunikatuko diote hori guztia eta ziurtagiria edo agiri informatiboa eskatuko diote, zeina jasota geratzeko moduko edozein bide erabiliz bidaliko zaien.

2. Administrazio-prozeduretan, ziurtagiri hori espedienteari erantsiko zaio, interesdunak entzun ondoren, nahiz eta espedientea ebatzita egon.



3. Artikulu honetako 1. zenbakian ezarritakoa gorabehera, notario-agirien kasuan, notarioek agiriok eskuetsi egin ahal izango dituzte, egilesleek presa dagoela alegatuz gero; bertan notarioek katastroko erreferentzia transkribatuko dute, zer frogagiri aurkeztu den adieraziko dute eta azalduko dute zalantza dutela katastroko erreferentzia higiezinarekin bat etortzeari buruz. Agiriak eskuetsi ondoren, notarioak ez du agerraraziko Bizkaiko Foru Aldundiak komunikatu dion erreferentzia, egilesleek horretarako baimena ematen diotenean izan ezik.

4. Jabetza Erregistroak, ziurtagiria edo agiri informatiboa bidaltzen zaionean eta haren aldeko kalifikazioa egin ondoren, idazpenean jasoko du katastroko erreferentzia edo, idazpena aurretik eginda badago, albo-ohar batean, eta, hala denean, tituluan oin-oharra eginez ere adieraziko du.

VI. titulua. Katastroko informaziorako sarbidea.

47. artikulua. Aplikatu beharreko araudia.

1. Katastroko informaziorako sarbidea datu pertsonalak babesteari buruzko legerian ezarritakoaren mende egongo da.

Halaber, sarbide horretarako ezartzen diren katastroko tasak ere ordainaraziko dira.

2. Katastroko informazio grafiko eta alfanumerikoa eman eta erabiltzea jabetza intelektualari buruzko legerian ezarritakoaren mende egongo da. Egile-eskubideak beti dagozkio Bizkaiko Foru Aldundiari.

3. Bizkaiko Foru Aldundiak ukatu egin dezake katastroko informaziorako sarbidea, arrazoituta betiere, baldin eta irizten badio informazio horretarako sarbideak kalte larria eragin diezaiekeela Aldundiaren interesei edo Aldundiaren eginkizunak betetzeari, edo irizten badio zerbitzu publikoaren funtzionamenduaren eraginkortasunari eragin diezaiekeela.

4. Katastroko informazioa bakarrik emango da Bizkaiko Foru Aldundian eskura dauden formatuetan, eta, ahal den guztietan, teknika eta bitarteko elektronikoak, informatikoak eta telematikoak erabiliko dira informazio hori emateko.

48. artikulua. Datu babestuak.



Titulu honetan ezartzen denerako, Higiezin Foru Katastroan katastroko titular gisa inskribatuta dauden izena, abizenak, sozietate-izena, identifikazio-kodea eta helbidea izango dira datu babestuak.

49. artikulua. Sarbiderako baldintza orokorrak.

1. Pertsona guztiek izango dute beren titulartasuneko higieziari buruz Higiezin Foru Katastroan dagoen informaziorako sarbidea, bai eta babestu gabeko datuen informaziorakoa ere.

2. Gainera, honako hauek katastroko informazio babesturako sarbidea izango dute, interesdunaren adostasunik behar izan gabe:

a) Bizkaiko Foru Aldundiko, beste foru aldundietako eta Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko organoek zein beste lurralde-administrazio publikoetakoek, Zerga Administrazioako Estatu Agentziak eta Gizarte Segurantzako entitate kudeatzaileak eta zerbitzu erkideek, baina beti eskumen-, egokitasun- eta proportzionaltasun-printzipioek ezartzen dituzten mugekin.

b) Parlamentuko ikerketa-batzordeek, Arartekoak, Herri Kontuen Euskal Epaitegiak zein antzeko eginkizunak dituzten araubide erkideko instituzioek edo autonomikoek.

c) Epaileek, auzitegiek eta Ministerio Fiskalak.

d) Organismo, korporazio eta erakunde publikoek, beren eginkizun publikoak betetzeko, baldin eta zenbaki honetako a) letran ezarritako baldintzak betetzen badira.

e) Onura publikoagatiko edo interes sozialagatiko desjabetzearen onuradun diren erakundeek eta gainerako onuradunek, Nahitaezko Desjabetzeari buruzko 1954ko abenduaren 16ko Legeak eta Nahitaezko Desjabetzeari buruzko Legearen Erregelamenduak ezarritako baldintzetan (erregelamendu hori 1957ko apirilaren 26ko dekretu baten bidez onetsi zen).

3. Aurreko zenbakietan zehaztutako kasuak ez direnean, katastroko datu babestuetarako sarbidea bakarrik egin ahal izango da datuok ukitutako pertsonak, berariaz, modu espezifikoan eta idatziz horretako adostasuna ematen badute, edo lege edo foru arau batek erabakitzen badu ez dela adostasunik behar, edo informazioa eskatzen bada interes legítimo eta zuzeneko agertzen eta justifikatzen den kasu hauetako batean:



a) Notarioek eta jabetza-erregistratzaileek finkak identifikatzeko denean eta, bereziki, foru arau honen V. tituluan ezarritakoa bete eta betearazteko denean.

b) Partzela mugakideak identifikatzeko denean, Higiezinaren Foru Katastroan partzela horien titular gisa agertzen direnek eskatzen badute.

c) Higiezinaren Foru Katastroan inskribatutako ondasun higiezinaren gaineko eskubide errealean edo ondasunon gaineko errentamenduaren edo apartzeriaren titular edo titularkide direnek eskatzen dutenean, aipaturiko higiezin horiei buruz.

d) Jaraunsleek eta oinordekoek eskatzen dutenean, kausatzailearen edo eskualdatzailearen izenean Higiezinaren Foru Katastroan inskribatuta dauden ondasun higiezinak direla eta.

e) Hirigintza-jarduketako eremu batean sartuta dauden partzelak identifikatzeko denean, informazio-eskaera jarduketa-eremu bereko beste partzela baten titularrek egiten badute.

4. Edozelan ere, aurreko zenbakietan zehaztutako inguruabarretan informazio babesturako sarbidea izan dutenek sarbidea ematerakoan baimendu zaien xederako soil-soilik erabili behar dute informazio hori. Gainera, datu pertsonalak babesteari buruzko legerian ezarritako betebeharrei eta erantzukizunei buruzko araubide juridikoa bete beharko dute, eta, datu babestuei dagokienez, Bizkaiko Lurralde Historikoko Zergei buruzko Foru Arauan ezartzen dena ere bai.

5. Artikulu honetan katastroko datuetan sartzeko arautzen den eskubidea erabiltzeko bete behar diren baldintzak eta betekizunak erregelamenduz arautzen ez diren bitartean, Bizkaiko Lurralde Historikoko zergen kudeaketari buruzko Araudian horrekin lotuta ezarritakoa aplikatuko da (araudi hori 2009ko uztailaren 21eko 112/2009 Foru Dekretuaren bidez onetsi zen).

50. artikulua. Amaitutako espedienteen parte diren agirietarako sarbidea.

1. Eskubidea egiten den egunean amaituta dauden espedienteen parte diren agirietarako sarbidea izango dute prozedura horietan alderdi izan direnek, bai eta prozedura horietan hartutako ebazpenek beren eskubide edo interes legitimoetan eragin dieten pertsonen ere.



2. Halaber, foru arau honen 49. artikuluko 2. zenbakian aipatzen diren organoek, bertan ezarritako baldintzetan, amaitutako espedienteen parte diren erregistro eta agiriatarako sarbidea izango dute, katastroko titularraren edo espedienteotan alderdi izan direnen adostasunik behar izan gabe.

VII. titulua. Arau-haustek eta zehapenak.

51. artikulua. Arau-haustek.

Egitate edo jokabide hauek tributu-arloko arau-haustea dira, zein zehapen jarri erabakitzeko elementu ez badira:

- a) Foru arau honen 16. artikuluan aipatzen diren deklarazioak ez aurkeztea, epez kanpo aurkeztea edo deklarazio faltsuak, osagabeak edo zehaztugabeak aurkeztea.
- b) Katastroko erreferentzia aurkezteko foru arau honen 38. artikuluan ezartzen den betebeharra ez betetzea edo katastroko erreferentzia faltsua edo faltsutua ematea. Nolanahi ere, betebeharrekoek ez dute erantzukizunik izango erreferentzia hori ez badago edo ezin bada ezagutu, dela foru arau honen 39. artikuluan aipatutako bideak erabiliz, dela zuzenean, Higiezinen Foru Katastroaren bulego birtualaren bidez edo sarbide telematikoaren bidez.
- c) Foru arau honen 17. artikuluan ezartzen den komunikazio-betebeharra ez betetzea.
- d) Foru arau honen 34. artikuluan ezartzen den betebeharra —datuak, txostenak edo aurrekariak ematekoa— ez betetzea.
- e) Katastro eta Balorazio Zerbitzuaren jarduketei jarkitzea, aitzakiak jartzea edo haiek egiteari ezezkoa ematea.

52. artikulua. Zehapen-araubidea.

1. Aurreko artikuluan tipifikatutako arau-haustek 100 eta 10.000 euro arteko diru-isun finkoa izango dute, kasu hauetan izan ezik:



a) Deklarazioak aurkezten ez direnean edo epez kanpo aurkezten direnean zehapena diru-isun proportzional bat izango da, deklaratu ez den edo epez kanpo deklaratu den aldaketaren ondorioz ondasun higiezinetan gertatutako katastro-balioaren gehikuntzaren % 1 artekoa. Edozelan ere, gutxienez, 300 eurokoa izango da isuna eta, gehienez, 200.000 eurokoa.

Deklaratu ez den edo epez kanpo deklaratu den aldaketaren ondorioz ez bada gehitzen aldaketa horrek eragindako ondasun higiezinaren katastro-balioa, orduan zehapena 300 euroko diru-isun finkoa izango da.

b) Tributu-arloko arau-haustea deklarazio faltsuak, osagabeak edo zehaztugabeak aurkeztu izana bada, zehapena 100 euroko diru-isun finkoa izango da deklarazioan sartu ez den, faltsutu den edo osagabe dagoen datu edo agiri bakoitzeko edo egindako errekerimenduei erantzunez aurkeztu behar zen datu edo agiri bakoitzeko, baina isunaren zenbatekoa, gehienez, 10.000 euro izango da.

2. Zehapenak graduatu egingo dira, honako irizpide hauen arabera eta erregelamendu bidez haiek aplikatzeko ezartzen diren erregelen arabera:

- a) Tributu-arloko arauak behin eta berriro haustea.
- b) Bizkaiko Foru Aldundiaren ikerketa-jarduerari jarkitzea, oztopoak jartzea edo hura egiteari ezezkua ematea.
- c) Arau-haustea egiterakoan iruzurrezko bideak erabiltzea edo arau-haustea bitarteko pertsona baten bitartez egitea. Ondorio horietarako, agiri faltsuak edo faltsutuak erabiltzea joko da iruzurrezko bidetzat.
- d) Betebeharrak edo eginbehar formalak edo lankidetzakoak berez ez betetzea edo atzerapenarekin betetzea.
- e) Eman ez diren datu, txosten edo aurrekariak katastroaren kudeaketaren eraginkortasunerako duten garrantzia eta, oro har, betebeharrak zein Bizkaiko Foru Aldundiari laguntzeko edo informazioa emateko betebeharrak ez betetzeak duen garrantzia.

XEDAPEN GEHIGARRIAK



Lehenengoa. Udal-mugarteak aldatzea.

Udal-mugarteak aldatzen direnean baina balio-txosten berriak onartzen ez diren edo daudenak aldatzen ez diren bitartean, beste udal-mugarte batean sartuko diren ondasun higiezinak katastro-balioak birkalkulatu egingo dira, xede-udalerriko balio-txostenen arabera.

Bigarrena. Izatezko bikoteak.

Foru arau honen ondorioetarako, izatezko bikoteak aipatzen direnean ulertuko da bikoteok izatezko bikoteak arautzen dituen 2003ko maiatzaren 7ko 2/2003 Legean xedatutakoaren arabera eraturitakoak direla.

XEDAPEN IRAGANKORRAK

Lehena. Katastro-balioztatzea.

Foru arau hau indarrean jartzen denean Higiezinak Foru Katastroan aurreko izaerarekin jasota dauden ezaugarri bereziko ondasun higiezinak katastro-balioa eta balioztatze-araubidea mantenduko dute, harik eta haien onartzen diren balio-txostenen ondoriozko balio berriak indarrean jarri arte; nolahi ere, balio hori geroago ere eguneratu ahal izango da, hala egin behar izanez gero.

Bigarrena. Lehendik dagoen arautegia.

Arauzko garapenari dagokionez foru arau honetan jasotakoa onartzen ez den bitartean, egun dauden erregelamendu-arauek jarraituko dute indarrean, foru arauaren kontrakoak ez badira.

Hirugarrena. Aribideko prozedurak.

Foru arau indarrean jarri aurretik hasitako prozedurak Ondasun Higiezinak gaineko Zergari buruzko 1989ko ekainaren 30eko 9/1989 Foru Arauan ezarritakoaren arabera eraenduko dira.

XEDAPEN DEROGATZAILEA



Foru arau hau indarrean jartzean derogaturik geratuko dira foru arau honetan xedatutakoaren aurka edo kontraesanean dauden maila bereko edo txikiagoko xedapen guztiak, eta indargabetu egingo dira, bereziki, 1989ko ekainaren 30eko 9/1989 Foru Arauan, Ondasun Higiezinaren gaineko Zergari buruzkoan, Higiezinaren Foru Katastroa arautzen duten artikulatuak.

AZKEN XEDAPENAK

Lehenengoa. Arauak emateko gaikuntza.

Gaitasuna ematen zaie Bizkaiko Foru Aldundiari eta Ogasun eta Finantzen foru diputatuari foru arau hau garatzeko eta aplikatzeko beharrezko diren xedapen guztiak eman ditzaten.

Bigarrena. Indarrean jartzea.

Foru agindu hau Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean jarriko da indarrean eta ordutik aurrera sortuko ditu ondorioak.